



San Benito
LAZKAOKO
IKASTOLA

IKASTETXEKO HEZKUNTZA
PROIEKTUA

(2023-07-05)

AURKIBIDEA

0. SARRERA	2
1. IZAERA	3
2. CURRICULUM PRINTZIPIOAK	5
3. ANTOLAKUNTZA-EGITURAREN PRINTZIPIOAK	6
4. PROIEKTU KURRIKULARRA	8
1. SARRERA	8
a. Funtsezko kompetentzien izaera.....	9
b. Funtsezko kompetentzien deskribapena.....	10
HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA	10
2. METODOLOGIA	25
2.1. Ikuspegi orokorra.....	25
2.2. Oinarrizko kompetentzia orokorrak lantzeko prozedura metadiziplinarrak.....	27
2.3. Etapetako metodologiak.....	31
2.3.1. Haur Hezkuntza:.....	31
2.3.2. Haur Hezkuntza: bigarren zikloa.....	34
2.3.3. LEHEN HEZKUNTZA.....	36
2.3.4. DBH.....	40
2.3.5. BATXILERGOA.....	42
3. HELBURUAK	43
3.1. ETAPETAKO HELBURU OROKORRAK.....	43
3.1.1. HAUR HEZKUNTZAREN HELBURU OROKORRAK.....	43
3.1.2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN HELBURU OROKORRAK.....	44
3.1.3. BATXILERGOAREN HELBURU OROKORRAK.....	48
Batxilergo orokorra3.2. ARLOETAKO HELBURU OROKORRAK.....	50
3.2.1. HAUR HEZKUNTZA.....	51
3.2.2. LEHEN HEZKUNTZA:.....	53
3.2.3. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA.....	53
3.2.4. BATXILERGOA.....	53
3.3. HELBURU DIDAKTIKOAK.....	53
4. ANIZTASUNAREN TRATAERA	54
4.1. HAUR HEZKUNTZA.....	56
4.2. LEHEN HEZKUNTZA.....	57
4.3. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA.....	57
4.4. BATXILERGOA.....	58
5. EBALUAZIOA	59
5.1. EBALUAZIO MOTAK.....	62
6. TUTORETZA ETA ORIENTAZIOA	63



0. SARRERA

Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan biltzen dira, San Benito Ikastolak zer ezaugarri eta helburu dituen, bai heziketari dagokionez, bai funtzionamenduari dagokionez. Ikastolaren ildoak markatzen duen erreferente nagusia da, Ikastolaren jarduna gidatzen duen dokumentua, eta Ikastolako hezkuntza komunitate osoak du bere lekua Ikastolaren proiektua zehazteko unean.

Hori horrela izanik, ondorengo galdera hauei erantzuten die: Non gaude? Nor gara? Zer lortu nahi dugu? Nolako heziketa nahi dugu? Nola gauzatuko dugu heziketa hori? Nola antolatuko gara hori lortzeko?

Ikastolaren proiektuak ondorengo atal nagusiak izango ditu:

- 1 IZAERA
- 2 CURRICULUM PRINTZIOAK
- 3 ANTOLAKUNTZA-EGITURAREN PRINTZIOAK
- 4 PROIEKTU KURRIKULARRA

Erakunde modura Ikastolak duen zeregina hezkuntza izanik, Ikastolaren Proiektuan markatzen da ikastolan nolako hezkuntza nahi dugun, zer helburu ditugun, ikasleak nola hezi nahi ditugun. Puntu horretan, San Benito Ikastolak bat egiten du Euskal Curriculumean proposatzen den hezkuntzaren xedearekin: *“Norberaren, gizartearen eta naturaren errealitateak kritikoki ulertzeko, horietan eraginkortasunez ekiteko eta arduraz eraldatzeko baliabideak ematean datza hezkuntzaren xedea, era horretara, pertsonen, gizabanako gisa, gizartekide eta izadi-kide gisa ahalik eta konpetentzia gehien gara dezaten”.*

Hezkuntzaren xede orokorra hori izanik, gure ikastolak eta inguruneak (herriak bereziki) dituen hezkuntza beharrak eta ezaugarri soziokulturalak kontuan izan behar dira Ikastolaren Proiektuan. Horrela, Ikastolaren ideiak eta printzipioak herrian dugun errealitate soziokulturalarekin etengabe erlazionatu behar dira, eta egoki ikusten denean, berrikusi eta egokitu egingo dira, eta Ikastolaren Proiektuan jasoko dira aldaketak.



1. IZAERA

San Benito Ikastolak bere ibilbidean zehar oinarrizko ezaugarri batzuk izan ditu eta ditu ardatz modura:

- Euskarazko irakaskuntza eskaintzea eta euskal kultura transmititzea, beti ere munduari irekita egonez.
- Gizartearen heziketa beharrei erantzutea. Bere hezkuntza proiektuan oso kontuan ditu herriaren eta ingurunearen ezaugarriak.
- Euskal Herriko Ikastolen mugimenduko partaide izan da, eta une honetan ere Euskal Herriko Ikastolak europar elkarteko kide da. Horrela izanik, gainerako Ikastolekin batera oinarrizko curriculum bera garatu du, eta dagokion organoetan parte hartu du.
- Gurasoen, langileen eta ikasleen partaidetza eta elkarlana bultzatzen ditu, hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea sustatuz, honetarako, izaera kooperatiboa duelarik.
- Ikuspegi soziokultural guztiei irekia da.

Ezaugarri horiek kontuan izanik, Ikastolaren eginkizuna (misioa) honela definitzen dugu:

“San Benito Ikastola gaurko Lazkaotar eta Goierritar ume eta gazteak biharko mundurako hezten dituen herri-ikastola da, herriko guraso eta irakasle komunitatearen indarrarekin eta elkarlanarekin euskal hezkuntza eredu kooperatiboa eskainiz, kultura orokorra, balio sozialak eta etorkizuneko lanetarako gaitasunak transmitituz; eta datorren mundu global eta aldakorrerako lazkaotar guztiak, murgiltze-sistema eredugarri baten bidez euskaldunduz, pertsona eleanitzak, proaktiboak, ekintzaileak eta konprometituak haziz, herriarekin bizikidetzan, urteetako bideak, ehunka lazkaotar eta proiektu pedagogiko-sozialak egunero hala frogatzen duten bezala”

Abiaburu hori dugularik, unean uneko gizartera eta heziketa beharretara egokitu behar da Ikastolaren jarduna. Hurrengo urteei begira, San Benito Ikastolak ondorengo ezaugarrietan sakontzeko konpromisoa hartzen du (bisioa; ikusmira):

- Hezkuntza komunitatearen parte hartzea bultzatzen duen ikastetxea izaten, gizarte-kohesioan eragile aktibo izaten, eta ikuspegi soziokultural guztiei irekia izaten. Era berean, Ikastolako kideen artean errespetuzko eta gertutasunezko harremanak bultzatzen dituen ikastetxea izatea.
- Bere ikasleei heziketa integrala emango dien ikastetxea izaten,



ikaslearen gaitasun guztiak garatuz, eta ikasleen aniztasuna kontuan hartuz. Horretarako, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko baliagarriak diren berrikuntza didaktikoak bereganatzen dituen ikastetxea izaten, Ikastolen euskal curriculuma garatzeko konpromisoarekin, formazio oneko profesional konprometituekin, bere hezkuntza jardunari buruz hausnarketa kritikoa eginez, ikasle bakoitzak dituen beharrei erantzuteko helburuarekin.

- Familiei, ikasleei kalitatezko zerbitzuak eskaintzen dizkien ikastetxea izatea, familiek izan ditzaketen hezkuntza beharrak asebetez.
- Ikasle bakoitzak dituen beharrei, gertutasunetik, bakoitza den bezelako onartzetik, ahalik eta modu eraginkorrean erantzutea.
- Kudeaketan eta baliabideetan kalitatea bermatuko duen ikastetxea izatea.
- Garapen jasangarriarekin konprometitutako ikastetxea izatea.

Eginkizun hauen artean, eguneroko irakaskuntza jardunarekin duen loturagatik, garrantzi berezia du euskal curriculuma garatzeko konpromisoak. Horren baitan biltzen dira ondorengo helburuak: euskal curriculumean definitutako bost konpetentzia orokorrak garatzeko konpromisoa; euskararen erabilera eta euskal kulturaren transmisioa ziurtatzea; konpetentzien garapenera bideratutako metodologia erabiltzea; ikasleen eleaniztasuna bultzatzea.

Helburu horiek aurrera eraman ahal izateko, San Benito Ikastolaren jarduna gidatuko duten balore modura ondorengoak definitu genituen:

- Gure Hezkuntza Proiektuak, Ikastola osatzen duten pertsona eta sentiberatasun desberdin guztienganako errespetua eta integrazioa bermatu nahi du. Ikastola gizartean txertatua eta guztientzat irekia dagoen instituzioa da, Euskal Herrian sustraitua eta munduari zabaldua.
- Ikaslea ikastolako ardatza izanik, Hezkuntza Komunitatearen laguntzaz, bere nortasun, sormena, garapena eta ekintzailtza aktibo gisa ulertzen dugu San Benito Ikastolan. Ikaslearen garapen integrala da gure hezkuntza egitasmoak duen erronka nagusia.
- San Benito Ikastolak Hezkuntza komunitatean parte hartzen dutenen arteko elkarlana, partaidetza eta konpromisoa suspertu nahi ditu, hezkuntzaren kalitatea, berrikuntza didaktiko, metodologiko eta teknologikoak indartuz. Ikastolako jarduerak garatzerakoan etengabeko hobekuntzan oinarritzen gara, ondo egindako lanak asebetetzen gaituelarik.
- San Benito Ikastolak zerbitzu publiko izpiritua du eta balio etiko zehatzak sustatzera konprometitzen da, pertsonaren duintasuna, aniztasuna, parte hartzea edo ekinbide demokratikoa, bestek beste, elkarren arteko estimu eta errespetuan oinarrituz. Euskal gizartearen eraikuntzan heziketa gizakoiak duen zeresanagatik, San Benito Ikastola Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak jasotzen dituen printzipioekin bat egin eta horiek zabaltzen ahalegintzea konprometitzen da.



2. CURRICULUM PRINTZIOAK

San Benito Ikastolaren curriculumaren printzipioak bat datoz nagusiki Ikastolen kolektiboak bere VI. Batzarrean onartutako oinarrizko curriculum komunaren printzipioekin, eta gizarte-ingurune konkretu batean egonik, ingurune horren eskakizunak ere hartzen dira kontuan.

A. Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen bultzatzaile.

- Hezkuntzarako eskubidea haurren giza eskubideetako bat da; hezkuntzak giza nortasuna bere osotasunean garatzeko helburua du, eta giza eskubideekiko eta oinarrizko askatasunarekiko errespetua sendotu behar ditu.

B.- Guztiei irekitako eskola.

- San Benito Ikastola irekia dago jatorri, gizarte-maila, ideologia edo sineskera guztietako ikasleei. Herriko ikastetxe bakarra izanik, ahalegin berezia egiten du aukera-berdintasuna bultzatzen, bertan dabilzan ikasleek, Euskal Herrian eta Europan txertatuta nahiz munduarekin harremanetan egongo den euskal gizartean bizitzen jakin dezaten.

C.- Heziketa integrala eta ikaslearen konpetentziak garatzea.

- San Benito Ikastolak ikaslearen alderdi guztiak hartuko ditu aintzat bere hezkuntzan: norbanako gisa, gizarteko kide edo partaide gisa, eta naturako partaide gisa.
- San Benito Ikastolak, bizitza osorako hezkuntzaren ikuspegi integrala lortzeko asmoz, Euskal Curriculumean definitutako hezkuntza konpetentzia orokorren garapena bultzatuko du, hala nola, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, norbera izaten ikastea eta egiten eta ekiten ikastea, guztiak ere diziplinaesparru guztietan eta bizitzaren esperientzietan txertatuz, horrela, bizitzarako beharrezkoak eta ezinbestekoak diren oinarrizko konpetentziak lortzeko. Metodologia aukeratzeko unean ere helburu hori izango du erreferentziazat.
- Ikastolak oinarrizko heziketa eta bizitza osorako prestakuntzaren oinarriak finkatuko ditu, pertsonaren garapen osoa besarkatuz, eta beste prestakuntza maila batzuetarako eta lan-mundurako sarbideak irekiz.



D.- Euskal eskola eta ingurunearekiko lotura.

- Komunitate edo herri orok, bere kultura, bere luzezabal osoan gorde, bizi, birsortu eta garatzeko nahiz bere kideei familiaren, eskolaren eta gainerako hedabideen bitartez transmititzeko eskubidea eta betebeharra ditu. Ikastola mugimendua, euskal hizkuntza eta kultura transmititzeko, erabilpen eraginkorra egiteko, garatzeko eta indartzeko konpromisoarekin sortu zen eta hori du ezaugarritzat. Horrela, eta eskubide hori gauzatzen duelarik, beste kultura batzuei ere irekia egongo da.
- San Benito Ikastolak, Euskararen Lurralde gisa hartzen du Euskal Herria, Euskaltzaindiak 2003. urteaz geroztik erabiltzen duen zentzu berean, hots, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroak (Behereak eta Garaiak) eta Zuberoak osatzen duten lurralde bezala, eta bere ezaugarriak eta kultura ikasleei transmititzen saiatuko da.
- San Benito Ikastolak, bere hezkuntza proiektua garatzeko unean, oso kontuan izango ditu kokaturik dagoen herria eta bere ingurunea.

3. ANTOLAKUNTZA-EGITURAREN PRINTZIBIOAK

San Benito Ikastola herri ekimenetik sortutako ikastetxea da, eta hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea bultzatzen du. Herriko ikastetxe bakarra izanik, herriko eragile nagusiekin lotura zuzena bilatzen du. Ezaugarri horietatik abiatuta, une honetan Gizarte Onurako Gurasoen Kooperatiba da. Hortik eratortzen da Ikastolaren egituraketa aginte organoei dagokionez (gurasoen, langileen eta udalaren ordezkartza Artezkartza kontseiluan, batzorde ezberdinak...), eta baita funtzionamendurako araudia ere.

Ikastolaren antolakuntza-egituratik abiatuta, Ikastolaren funtzionamendua oinarrizko printzipio batzuen arabera izango da: elkarlana, errespetua onartutako araei eta gainerako kideei, erantzukizuna, elkartasuna, parte hartzea bultzatzea eta gestio demokratikoa garatzea.

San Benito Ikastola Euskal Herriko Ikastolen Kolektiboko partaide da, eta erakunde horri dagokionez, antolakuntza-egiturrentzat onartu ziren printzipioekin bat egiten du: lankidetzaren printzipioa, aniztasun eta malgutasun printzipioa, etengabeko hobekuntzaren printzipioa, enpresa zentzuaren printzipioa...

Kudeaketari dagokionez, San Benito Ikastolak 2001 ikasturtean, EFQM eredu hautatu zuen kudeaketaren sistematizazioa eta kalitatea



lantzeko. Ikastolak betidanik izan du kudeaketa era eraginkorrek eta modernoak garatzeko borondatea. Eredu horrek erakundearen alor desberdinak hartzen ditu kontuan, interes taldeak eta emaitzak oinarritzat hartuz: lidergoa, Ikastolaren politika eta estrategia, langileak, aliantzak eta baliabideak, prozesuak, bezeroengan emaitzak, langileengan emaitzak, gizarteko emaitzak eta emaitza nagusiak.

Funtzionamendu era honek lan banaketa, ahal den sistematizazio mailarik handiena izatea, erantzukizunak norbere gain hartzea, egindakoa neurtzea eta aztertzea, hobekuntzarako puntuak aurkitzea... bultzatzen ditu.

2003. urtean San Benito Ikastolak Euskalit erakundeak aitortzen duen zilarrezko Q-a lortu zuen. EFQM-k lanerako, kudeaketarako eta funtzionamendurako eredu bat eskaintzen du, eta aurrera begira ere eredu horretan sakontzeko eta hobetzeko konpromisoa hartzen du Ikastolak.



4. PROIEKTU KURRIKULARRA

- KONPETENTZIEN GARAPENEAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA

1. SARRERA

San Benito Ikastolaren curriculum proiektuaren erreferentia ***Ikastolen Euskal Curriculum***a izango da. Hango ildoari jarraituz, hezkuntzaren helburua ondorengo da: gizabanako gisa, gizartekide gisa eta izadi-kide gisa, pertsonaren gaitasunak ahal den gehien garatzea, eta bere alor guztietan eraginkortasunez jarduteko trebatzea, **pertsonen konpetentziak garatzea**. Pertsona konpetentea, egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez erantzuteko gai dena da, eta horretarako beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak era bateratuan eta integratuan erabiltzen dituena. Horixe da konpetentzien garapenean oinarritutako hezkuntzaren ardatza.

San Benito Ikastolak helburu horri begira jarritako hezkuntza eskaintzen du, eta elkarreragin estuan dauden funtsezko konpetentziak izango ditu curriculumaren ardatz gisa: Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, Konpetentzia eleaniztuna, Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia, Konpetentzia digitala, Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa, Herritartasunerako konpetentzia, Ekintzailtza-konpetentzia eta Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia. Funtsezko konpetentzia horiek hezkuntza-testuinguru guztietan ikasten dira, bai formaletan, bai informaletan; gainera, komunak dira etapa, jakintza-arlo eta irakasgai guztietan, eta zeharka integratzen dira.

Konpetentzia honela definitzen da: *“Eskari konplexuei erantzuteko eta zereginak modu egokian gauzatzeko gaitasuna. Ekintza eraginkor bat lortzeko modu bateratuan mobilizatzen diren trebetasun praktikoak, ezagutzak, motibazioa, balio etikoak, jarrerak, emozioak eta beste gizarte- eta jokabide-osagai batzuk konbinatzea eskatzen du”*. Hauek lirateke beronen ezaugarri bereizgarriak: “egiten jakite” bat eratzen du, hau da, aplikatzen den jakintza bat, askotariko testuinguruetara egokitzeko modukoa; eta izaera integratzailea du, ezagutzak, prozedurak eta jarrerak biltzen baititu.

Ikuspegi horri jarraituz, konpetentziak garatzea izango da San Benito Ikastolaren hezkuntza-jardunaren erreferentzia. Konpetentzien nozioa azpimarratuz, nabarmendu nahi dugu jarduera, ezagutza, egoera praktikoetan eta testuinguru zehatzetan erabiltzera bideratu behar dela hezkuntza; ezagutza hori, jarduteko benetako baliabidea izan dadin. Konpetentzia jardunari lotuta dago, beraz.



Ezagutzen “erabilera” azpimarratzeak ez du esan nahi “ezagutzak” gutxiesten direnik, baizik eta ezagutza eta erabilera osagarriak direla. Argi dago jarduerak eraginkorragoak direla praktikari buruz hausnartzeko gai garenean, hau da, esperientziaren bidez barneratutako ezagutza modu kontzientean erabiltzeko gai garenean.

Hezkuntzaren ikuspegi horretatik abiatzeak ondorio zuzenak ditu Ikastolan landuko den **metodologian**: gaur egungo gizartearen beharrei erantzuteko, eta ikaslearen funtsezko konpetentziak ~~orokorra~~ lantzeko, **ikuspegi sozioeraikitzailea** hautatuko da **hezkuntza-jardunean** eta **ikasketa-materialetan**. Horrela, ezagutza berriak ikasleak aurretik ezagutzen duenaren gainean eraikitzea bideratuko da irakaskuntza prozesua, eta ikasleen arteko elkarreraginari garrantzi handia emango zaio.

a. Funtsezko konpetentzien izaera

San Benito Ikastolak eskaintzen duen heziketaren ardatz modura aipatu ditugun funtsezko konpetentzia bizitzarako ezinbestekoak dira. **Bizitzaren esparru eta maila guztietan** -pertsonala, soziala, profesionala, akademikoa...- beharrezkoak dira. Horien lorpena, bestetik, ez da eskolaren bidez soilik eskuratzen, egoera guztietan baizik. Eskolaren bidez guztiak lantzen dira, baina bereziki “pentsatzen eta ikasten ikasi”, “komunikatzen ikasi” eta “egiten eta ekiten ikasi”. Elkarrekin bizitzen eta norbera izaten ikasteko eskolaren eragina handia da, baina are handiagoa eguneroko bizitzan, era informalean, suertatzen diren egoeren bidezkoa. Familiaren erantzukizuna alde horretatik handia da. Planteamendu honek eskolaren eta familiaren arteko lankidetzak eskatzen du.

Funtsezko konpetentziak zuzenean diziplina arloen eduki espezifikoen erreferentzia egiten ez duten konpetentziak dira, nahiz eta, hezkuntzaren ikuspegitik duten balioagatik, lotuta egon horiekin guztiekin. Konpetentzia orokor horiek ez dira bakartuta ikasten, bizitzako eszenatoki desberdinetan txertatuta baizik (hezkuntzako, lanbide- eta lan-arlokoa, komunitatekoa eta pertsonala). Irakaskuntza formalaren eszenatokian, curriculum-arlo guztietako edukietan txertatzen diren neurrian izango dute zentzua.

Funtsezko konpetentziak **egoera espezifikoetan** uztartzen diren neurrian **gauzatzen dira**. Hezkuntza formalean egoera espezifiko horien ardatzak diziplina-arloak dira. Diziplina arloak kontzeptuzko edukien, prozedurazkoen eta jarrerazkoen multzo moduan osatu dira. Diziplina-arlo horiei beren izaera propioa eman zaie, horrela antolatu delako hezkuntza sistema. **Funtsezko Konpetentziak diziplina arloen bidez garatzen dira, jarrera eta prozedura metadiziplinarrak landuz**, funtsezko konpetentziak garatzeko. Hezkuntzaren ikuspegi orokorra hori delarik, San Benito Ikastolak bere hezkuntza-jardunaren bidez landu eta garatu nahi dituen helburuak zehazteko unean (etapak edo zikloko helburuak,



diziplina arloetako helburu orokorrak, helburu didaktikoak) eta ebaluatzerakoan, konpetentziak izango dira erreferentzia nagusi.

Ildo horretan, hezkuntzaren erronka handienetako bat funtsezko konpetentzia orokorren eta diziplina arloei dagozkien konpetentzia espezifikoaren arteko integrazioa lortzea da. Ez du zentzurik konpetentzia horiek bereizita eta loturarik gabe planteatzeak. Izan ere, diziplina arloen ezagutzek ez dute berezko baliorik, hezkuntzaren xedeak betetzen laguntzen duten heinean baitira baliagarriak. Diziplina-arloen bidez bizitarako garrantzizkoak diren konpetentzia espezifikoak lor ditzakegu. Arlo horiek garrantzizkoak dira pertsona baten hezkuntzarako bizitarako oinarritutakoak diren konpetentziak eskuratzen laguntzen duten neurrian, baina era berean garrantzizkoak dira, arlo horien bidez **Funtsezko Konpetentziak** garatzen direlako. Diziplina-arlo jakin bateko irakaslea ez da arlo horretako irakasle soila, beste irakasle guztiekin batera **persona osoaren hezitzailea** baizik.

b. Funtsezko konpetentzien deskribapena

San Benito Ikastolak konpetentzietan oinarritutako hezkuntza ereduak garatzen ditu. Ondorioz, erreferentzia modura Funtsezko Konpetentziak definitzen ditugu eta definizio hau, deskribatzaile operatiboaren bidez egiten da.

HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak esan nahi du ahoz, idatziz edo modu koherente eta egokian jardun behar dela hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat komunikazio-helbururekin.

Ezagutza, trebetasun eta jarrera guztiak modu kontzientean mobilizatzea eskatzen du, ahozko mezuak, zeinuak, idatziak, ikus-entzunezkoak edo multimodalak ulertzeko, interpretatzeko eta kritikoki baloratzeko aukera ematen dutenak, manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak saihestuz, bai eta beste pertsona batzuekin modu kooperatiboan, sortzailean, etikoan eta errespetuzkoan eraginkortasunez komunikatzea ere.

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia norberaren pentsamendurako eta jakintzaren eremu guztietan ezagutza eraikitzeke oinarria da. Horregatik, hizkuntzak ezagutza-arlo bakoitzeko diskurtso-genero espezifikoetan duen funtzionamenduari buruzko hausnarketa esplizituari lotuta dago haren garapena, bai eta ahozotasunaren, signazioaren edo idazketaren erabilerei ere, pentsatzeko eta ikasteko. Azkenik, hizkuntzaren dimentsio estetikoa aintzat hartzea eta literatura-kulturaz gozatzea ahalbidetzen du.



Deskriptore operatiboak

LH AMAIERAN, IKASLEAK...	DBH AMAIERAN, IKASLEAK...
<p>HKK1. Gertakariak, kontzeptuak, pentsamenduak, iritziak edo sentimenduak ahoz, idatziz eta era multimodalean edo siglen bidez adierazten ditu, argi eta bere ingurune pertsonal, sozial eta hezitzaileko eguneroko testuinguruetara egokituta, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzaz eta errespetuz, bai informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai lotura pertsonalak eraikitzeko.</p>	<p>HKK1. Euskaraz eta gaztelaniaz ahoz, idatziz eta era multimodalean edo siglez bidez hitz egiten du, koherentziaz, zuzentasunez eta gizarte-testuinguruekiko egokitasunez, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzan eta errespetuz, informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai eta lotura pertsonalak eraikitzeko ere.</p>
<p>HKK2. Pertsona-, gizarte- eta hezkuntza-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testu errazak ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu, euskaraz zein gaztelaniaz, unean uneko laguntzarekin, eguneroko testuinguruetan aktiboki parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.</p>	<p>HKK2. Pertsona-, gizarte-, hezkuntza- eta lanbide-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu jarrera kritikoz, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.</p>
<p>HKK3. Bi iturritatik edo gehiagotatik datorren euskarazko eta gaztelaniazko informazio erraza aurkitu, aukeratu eta kontrastatzen du, eta fidagarritasuna eta erabilgarritasuna ebaluatzen ditu irakurketa-helburuen arabera, eta ezagutza bihurtzen du komunikatzeko, ikuspegi sortzaile eta pertsonala hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.</p>	<p>HKK3. Hainbat iturritatik datorren informazioa, euskaraz eta gaztelaniaz, gero eta modu autonomoagoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, irakurketa-helburuen arabera, eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz; informazioa integratu eta ezagutza bihurtzen du, komunikatzeko, ikuspegi sortzaile, kritikoa eta pertsonala hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.</p>



<p>HKK4. Bere garapenera egokitutako euskarazko eta gaztelaniazko askotariko lanak irakurtzen ditu, bere gustu eta interesetara hobekien egokitzen direnak hautatuz; ondare literarioa norbanakoaren eta taldearen gozameneko eta ikaskuntzarako iturritzat hartzen du; eta bere esperientzia pertsonala eta irakurlea mobilizatzen ditu, obren interpretazioa eraiki eta partekatze eta eredu errazetatik abiatuta asmo literarioko testuak sortzeko.</p>	<p>HKK4. Autonomiaz irakurtzen ditu bere adinerako egokiak diren hainbat lan euskaraz eta gaztelaniaz, bere gustu eta interesetara hobekien egokitzen direnak hautatuz; ondare literarioa esperientzia indibidual eta kolektiboaren bide pribilegiatutzat hartzen du; eta bere esperientzia biografikoa eta ezagutza literario eta kulturalak mugiarazten ditu, obren interpretazioa eraikitze eta partekatze eta gero eta konplexuagoak diren asmo literarioko testuak sortzeko.</p>
<p>HKK5. Bere komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazken kudeaketa elkarrizketatuaren eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak hautemanetz, bai eta hizkuntzaren bidez gertatzen diren botere-gehiegikeriak ere, hizkuntzaren erabilera eraginkorra ez ezik, etikoa ere bultzatzeko eta euskararen ohiko erabilerarekiko jarrera asertiboa izateko.</p>	<p>HKK5. Bere komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazkek elkarrizketaren bidez konpontzearen eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak baztertuz, bai eta hizkuntzaren bidezko botere-gehiegikeriak ere, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa ere bultzatzeko eta euskararen ohiko erabilerarekiko jarrera asertiboa izateko.</p>

KONPETENTZIA ELEANIZTUNA

Konpetentzia eleaniztunak hainbat hizkuntza, ahozkoak edo zeinuzkoak, ikasteko eta komunikatzeko modu egoki eta eraginkorren erabiltzea eskatzen du. Konpetentzia horrek esan nahi du norberaren hizkuntza-profilak aitortu eta errespetatu behar direla, eta norberaren esperientziak baliatu behar direla mediaziorako estrategiak garatzeko eta hizkuntzen arteko transferentziak egiteko, hizkuntza klasikoak barne, eta, hala badagokio, trebetasunak mantendu eta eskuratzeko hizkuntzan, familia-hizkuntzan edo hizkuntza ofizialetan. Era berean, gizartearen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna ezagutzera, balioestera eta errespetatzera bideratutako dimentsio historikoak eta kulturartekoak biltzen ditu, bizikidetzaren demokratikoa sustatzeko helburuarekin.



Deskriptore operatiboak

LH AMAIERAN, IKASLEAK...	DBH AMAIERAN, IKASLEAK...
<p>KE1. Gutxienez, hizkuntza bat erabiltzen du, familiako hizkuntzaz edo hizkuntzez eta hizkuntza ofizialez gain, komunikazio- premia erraz eta aurreikusteko modukoei erantzuteko, bai haren garapenari eta interesei erantzuteko, bai eremu pertsonaleko, sozialeko eta hezkuntzako eguneroko egoera eta testuinguruei erantzuteko.</p>	<p>KE1. Hizkuntza bat edo gehiago modu eraginkorrean erabiltzen ditu, familiako hizkuntzaz edo hizkuntzez eta hizkuntza ofizialez gain, bere komunikazio-premiei behar bezala eta egoki erantzuteko, bai bere garapen eta interesei dagokienez, bai eremu pertsonaleko, sozialeko, hezkuntzako eta profesionaleko egoera eta testuinguruei dagokienez.</p>
<p>KE2. Bere esperientzietatik abiatuta, hizkuntza-eskakizunen aniztasuna ezagutzen du eta norberaren ikaskuntza-prozesuei buruzko gogoeta egiten du, eta hizkuntzen arteko transferentzia-estrategia errazak modu gidatuan esperimintatzen ditu, eta konfiantzazko jarrera adierazten du komunikatzeko gaitasuna hobetzeko ikasteko kompetentzian.</p>	<p>KE2. Bere esperientzietatik abiatuta, bere ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzen du, eta beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan eskuratutako ezagutzak eta komunikazioa transferitzeko estrategiak erabiltzen ditu, eta konfiantzazko jarrera erakusten du komunikatzeko gaitasuna hobetzeko ikasteko duen kompetentzian.</p>
<p>KE3. Lagunduta, ikastetxearen eta ingurunearen hizkuntza-aniztasuna identifikatzen du, errespetuzko eta enpatiazko jarrera hartuta, eta hizkuntzak komunikabide eraginkortzat eta bizikidetzat hobetzeko tresnatzat hartuta.</p>	<p>KE3. Ikastetxearen eta ingurunearen hizkuntza-aniztasuna onartzen du, aniztasun horrekiko errespetuzko eta enpatiazko jarrera erakusten du, eta hizkuntzak komunikabide eraginkortzat, kultura-ondaretzat eta gizarte-kohesioa sustatzeko tresnatzat hartzen ditu.</p>

MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA eta ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIERITZARAKO KONPETENTZIA (STEM)

Matematikarako konpetentziak eta zientzia, teknologia eta ingeniariarako konpetentziak (STEM konpetentzia, ingelesezko sigletan) mundua ulertzea dakar berekin, metodo zientifikoak, pentsamendu eta irudikapen matematikoak, teknologia eta ingeniariaritzaren metodoak erabiliz ingurunea modu konprometituan, arduratsuan eta jasangarrian eraldatzeko.



Matematikarako konpetentziak ikuspegi eta arrazoibide matematikoak garatzea eta aplikatzea ahalbidetzen du, hainbat testuingurutan zenbait problema ebazteko.

Zientziarako konpetentziak ingurune naturala eta soziala ulertzea eta azaltzea dakar berekin, ezagutza eta metodologia multzo bat erabiliz, behaketa eta esperimentazioa barne, galderak planteatzeko eta probetan oinarritutako ondorioak ateratzeko, mundu naturala eta testuinguru soziala interpretatu eta eraldatu ahal izateko.

Teknologia eta ingeniartzako konpetentziak zientziei dagozkien ezagutzak eta metodologiak aplikatzea barne hartzen du, gure gizartea pertsonen behar edo nahien arabera segurtasun, erantzukizun eta iraunkortasuneko esparru batean eraldatzeko.

Deskriptore operatiboak

LH AMAIERAN, IKASLEAK...	DBH AMAIERAN, IKASLEAK...
<p>STEM1. Gidatuta, arrazoiketa matematikoaren berezko metodo induktibo, deduktibo eta logiko batzuk erabiltzen ditu, bai eta metodo zientifikoaren arrazoiketa hipotetiko- deduktiboa ere egoera ezagunetan, eta problemak ebazteko estrategia batzuk hautatu eta erabiltzen ditu, lortutako soluzioei eta jarraitutako prozesuari buruz hausnartzuz.</p>	<p>STEM1. Arrazoiketa matematikoaren berezko metodo induktibo, deduktibo eta logiko batzuk erabiltzen ditu, baita metodo zientifikoaren arrazoiketa hipotetiko- deduktiboa ere egoera ezagunetan, eta problemak ebazteko hainbat estrategia hautatu eta erabiltzen ditu, jarraitutako soluzioak eta prozesua kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa izanez gero.</p>
<p>STEM2. Pentsamendu zientifikoa erabiltzen du bere inguruan gertatzen diren sistema naturalei eta materialei buruzko prozesu eta gertaera batzuk ulertzeko eta azaltzeko, ezagutzan konfiantza bereganatuz garapenerako motor gisa, galderak eginez, esperimentu errazak gidatuz, jarduera zientifikoaren berezko oinarritzko trebetasunak modu egokian erabiliz eta, laguntzarekin, horien gauzatzea eta emaitzen interpretazioa baloratuz.</p>	<p>STEM2. Pentsamendu zientifikoa erabiltzen du bere inguruan gertatzen diren sistema natural eta materialei buruzko prozesu eta gertaera batzuk ulertzeko eta azaltzeko, ezagutzan konfiantza bereganatuz garapenaren motor gisa, galderak planteatuz, eta hipotesiak egiaztatuz esperimentazioaren eta ikerketaren bidez, tresna egokiak erabiliz, zehaztasunaren eta egiazkotasunaren garrantzia</p>



	<p>balioetsiz, eta eredu zientifikoarekiko ondorio esanguratsu eta koherenteren bat lortuz, zientziaren irismenari eta mugei buruzko jarrera kritikoa erakutsiz.</p>
<p>STEM3. Proiektuak modu gidatuan egiten ditu, prototipo edo eredu desberdinak diseinatuz, fabrikatuz eta ebaluatuz, ziurgabetasunaren aurrean egokituz, kooperatiboki helburu jakin bat duen produktu sortzaile bat sortzeko, talde osoaren parte-hartzea saiatuz eta sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan konponduz.</p>	<p>STEM3. Proiektuak planteatzen eta garatzen ditu, eta, horretarako, hainbat prototipo edo eredu diseinatu, fabrikatu eta ebaluatzen ditu, premia edo arazo bati modu sortzailean eta kooperatiboan irtenbidea emango dioten produktuak sortzeko eta/edo erabiltzeko, talde osoaren parte-hartzea saiatuz, sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan konponduz, ziurgabetasunaren aurrean egokituz eta iraunkortasunaren garrantzia baloratu.</p>
<p>STEM4. Metodo eta emaitza zientifiko, matematiko eta teknologiko batzuen oinarritzko informazioa eta elementu garrantzitsuenak modu argi eta egiazkoan interpretatzen eta transmititzen ditu, matematikako, zientzietako eta teknologiko hizkuntza egokia erabiliz (terminologia espezifikoak, grafikoak, notazioa, sinboloak eta kodeak) eta kultura digitala modu kritiko, etiko eta arduratsuan baliatuz ezagutza berriak partekatzeko eta eraikitzeko.</p>	<p>STEM4. Prozesu, arrazoiketa, erakustaldi, metodo eta emaitza zientifiko, matematiko eta teknologikoen elementu garrantzitsuenak argi eta zehatz interpretatzen eta transmititzen ditu, hainbat formatutan (grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak...) eta kultura digitala modu kritikoan aprobetxatzen du, hizkuntza matematiko-formala barne, etika eta erantzukizunez, ezagutza berriak partekatzeko eta eraikitzeko.</p>
<p>STEM5. Osasuna eta ingurumena babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzetan parte hartzen du, proposamenak eginez eta kontsumo arduratsuen praktikan etika- eta segurtasun-printzipioak aplikatuz.</p>	<p>STEM5. Osasun fisikoa eta mentala eta ingurumena babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzei ekiten die, eta etika- eta segurtasun-printzipioak aplikatzen ditu ingurune hurbila modu jasangarrian eraldatzeko proiektuak egitean, haren eragin globala baloratu eta kontsumo</p>



	arduratsua praktikatuz.
STEM6. Gizadiaren historian matematikak, zientziak eta teknologiak duten garrantzia balioesten du, zientziak pertsonen ongizateari dakartzkion onurak edo erabilerak adieraziz eta aparatu, aplikazio eta aurrerapen zientifiko-teknologiko batzuekin lotuz.	STEM6. Modu kritikoan justifikatzen du ikerketa zientifikoaren beharra eta horren aplikazioak eta aurrerapen zientifiko-teknologikoak gizartearen ongizatean, hainbat egoera problematikoren aurrean erabaki arrazoituak hartzeko gizarte modernoaren garapenean izan duten zeregina ezagututa.

KONPETENTZIA DIGITALA

Konpetentzia digitalak ikaskuntzarako, lanerako eta gizartean parte hartzeko teknologia digitalen erabilera kritikoa, segurua, osasungarria, iraunkorra, sortzailea eta arduratsua eskatzen du, bai eta teknologia horien bidez pertsonekin edo gailuekin elkarreragitea ere.

Konpetentzia digitalaren barruan sartzen dira informazioaren eta datuen alfabetizazioa, komunikazio eraginkorra eta hainbat kanal eta inguruneren bidezko lankidetzak, hainbat hizkuntzaren erabilerari buruzko alfabetatze mediatikoa, askotariko eduki digitalen sorrera (programazioa barne), segurtasuna (ongizate digitala barne) eta herritartasun digitalarekin, pribatutasunarekin, jabetza intelektualarekin, arazoaren ebazpenarekin, pentsamendu konputazionalarekin eta kritikoarekin lotutako gaitasunak.

Deskriptore operatiboak

LH AMAIERAN, IKASLEAK...	DBH AMAIERAN, IKASLEAK...
KD1. Bilaketa gidatuko estrategia errazak erabiltzen ditu informazioa eskuratzeko (hitz gakoak, informazio garrantzitsuaren analisia, datuen antolamendua), jarrera kritikoarekin, informazio-beharrak identifikatuta, eta fitxategiak eta edukiak gordeta eta berreskuratuta.	KD1. Interneten bilaketa aurreratuak egiten ditu (bilaketa-terminoen, formatuaren, gaurkotasunaren eta lizentziaren arabera), baliozkotasun-, kalitate-, gaurkotasun- eta fidagarritasun-irizpideak kontuan hartuta, informazioa modu kritikoan hautatu eta ulertzen du, modu esanguratsuan konbinatuz, eta modu ordenatuan artxibatuz, berreskuratu eta erreferentzia egiteko, jabetza intelektualarekin errespetatuz.
KD2. Norberak edo beste batzuek	KD2. Etengabeko ikaskuntzako bere



<p>sortutako edukia sortzen eta editatzen du, integratzen eta berregiten du, hainbat formatutan (testua, taula, irudia, audioa, bideoa, programa informatikoa...), ideiak, sentimenduak eta ezagutzak adierazteko tresna digitalak erabiliz, jabetza intelektuala eta egile-eskubideak errespetatuz eta modu antolatuan gorde eta berreskuratuz.</p>	<p>ingurune pertsonal digitala kudeatzen eta erabiltzen du jatorrizko ezagutza eta eduki digitalak hainbat formatutan ekoizteko eta gordetzeko, atazaren edo beharren arabera dagozkion tresna digitalak erabilia, bai dauden edukiak berrerabilia, bai sortutako edukiei lizentziei buruzko ezagutza aplikatuta.</p>
<p>KD3. Eskolako jardueretan eta/edo proiektuetan parte hartzen du, tresna edo plataforma birtualak erabiliz, ezagutza berria eraikitzeo, hainbat bitartekoren bidez komunikatzeko (txata, mezularitza, bideo-deiak), gai bati buruz eztabaidatuz edo produktuak sortuz elkarlanean lan egiteko, datuak eta edukiak ingurune digital mugatuetan eta modu seguruan gainbegiratuta partekatzeo, bere nortasun digitalaren jarrera ireki eta arduratsuekin.</p>	<p>KD3. Sare sozialen edo lineako komunitateen gisako tresnen eta/edo plataformen bidez parte hartzen, laguntzen eta elkarreragiten du, komunikatzeko, lankidetzan lan egiteko eta edukiak, datuak eta informazioa partekatzeo; horretarako, bere helburura ondoen egokitzen dena aukeratzen du, bere ekintzak, presentzia eta ikusgarritasuna modu arduratsuan kudeatzen ditu sarean, eta herritartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetatsua gauzatzen du.</p>
<p>KD4. Normalean, irakaskuntza-orientazioarekin, prebentzio-neurriak aplikatzen ditu teknologia digitala erabiltzean gailuak babesteko (anitibirusa erabiltzea, pasahitzak kudeatzea), datu pertsonalak (pribatutasuna), osasuna eta ingurumena, badaki nola hartu prebentzio- neurriak ziberjazarpenetik babesteko, eta jabetzen da identitate digitalarekin lotutako onurez eta arriskuez.</p>	<p>KD4. Gailu digitalak babesten ditu, segurtasun-estrategiak eguneratzen ditu, haien pribatutasuna eta besteena ulertzen eta babesten ditu oro har, eta oinarritzko ezagutza du haien datuak biltzeko eta erabiltzeko moduari buruz, badaki bere burua eta beste batzuk ziberjazarpenetik babesten, eta ulertzen ditu teknologien erabilerari lotutako osasun-arriskuak (ergonomia, adikzioak), eta ulertzen du teknologiak ingurumen-jasangarritasunean duen eragin positiboa eta negatiboa.</p>
<p>KD5. Konponbide digital erraz eta jasangarriak garatzen hasten da</p>	<p>KD5. Arazo tekniko posibleak eta gabeziak</p>



<p>(material teknologikoak berrerabiltzea, blokekako programazio informatikoa, hezkuntza-robotika, etab.), sormenez proposatutako arazo zehatzak edo erronkak ebazteko, behar izanez gero laguntza eskatuz eta softwarearen eta aplikazioen funtzio sinple batzuk aldatuz (oinarrizko konfigurazio-aukerak).</p>	<p>identifikatzen ditu, baliabideak, tresnak eta gaitasun digitala garatzeari dagokionez, eta irtenbidea ematen die; informatika-aplikazio errazak eta irtenbide teknologiko sortzaile eta jasangarriak garatzen ditu arazo zehatzak konpontzeko edo proposatutako erronkei erantzuteko; interesa erakusten du, eta teknologia digitalen bilakaeraren, garapen iraunkorraren eta erabilera etikoaren azpian dauden printzipio orokorrak eta logika ulertzen ditu.</p>
--	---



KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOAK

Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoak berekin dakar norik bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, norik bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko; denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzeko; beste batzuekin modu eraikitzailean lankidetzan aritzeko; erresilientziari eusteko; eta bizialdi osoko ikaskuntza kudeatzeko. Honako hauek ere sartzen dira: ziurgabetasunari eta konplexutasunari aurre egiteko gaitasuna; aldaketetara egokitzea; prozesu metakognitiboak kudeatzen ikastea; bizikidetzaren aurkako jokabideak identifikatzea eta horiei aurre egiteko estrategiak garatzea; norberaren eta gainerako pertsonen ongizate fisiko, mental eta emozionalari laguntzea, norik bere burua eta ingurukoak zaintzeko trebetasunak garatuz erantzukidetasunaren bidez; etorkizunera bideratutako bititza bat eramateko gai izatea; enpatia adieraztea eta gatazkei heltzea.

Deskriptore operatiboak

LH AMAIERAN, IKASLEAK...	DBH AMAIERAN, IKASLEAK...
KPSII1. Bere emozioak, ideiak eta jokabide pertsonalak ezagutzen ditu, eta tentsio- edo gatazka-egoeretan horiek kudeatzeko estrategiak erabiltzen ditu, zenbait portaera erregulatzeko gai izanik, aldaketetara egokituz eta harmonizatuz, bere helburuak lortzeko.	KPSII1. Bere emozioak erregulatzen eta adierazten ditu, eta, horretarako, baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta ikasteko asmoa eta motibazioa bilatzen ditu, edozein testuingurutan sortzen diren erronkak eta aldaketak modu konstruktiboan kudeatuz eta bere helburuekin harmonizatuz.
KPSII2. Osasunerako arrisku garrantzitsuenak ezagutzen ditu eta bere ongizate fisiko eta mentalerako ohitura osasungarriak hartzen hasten da.	KPSII 2. Faktore sozialekin lotutako osasunerako arriskuak ezagutzen ditu, maila fisikoan eta mentalean bizi-ohitura osasungarriak finkatzeko, eta ikaskuntza sustatzen eta oztopatzen duten baldintza pertsonalak eta inguruneak identifikatzen ditu.
KPSII3. Besteen emozioak eta esperientziak ezagutu eta errespetatzen ditu, talde- lanean parte hartzen du, esleitutako banakako erantzukizunak bere gain hartzen ditu eta partekatutako helburuak lortzera bideratutako	KPSII3. Besteen ikuspegiak eta esperientziak modu proaktiboan ulertzen ditu, eta ikaskuntzan txertatzen ditu, talde-lanean parte hartzeko, zereginak eta erantzukizunak modu ekitatiboan banatuz eta onartuz eta estrategia



lankidetza-estrategia errazak erabiltzen ditu.	kooperatiboak erabiliz.
KPSII4. Bere ikaskuntza hobetzeko ahalegin eta dedikazio pertsonalaren balioa ezagutzen du, eta jarrera kritikoak hartzen ditu hausnarketa-prozesu gidatuak gertatzen direnean.	KPSII4. Bere ikaskuntza-prozesuari buruzko autoebaluazioak egiten ditu, informazioa baliozkotzeko, sostengatzeko eta kontrastatzeko eta ondorio garrantzitsuak ateratzeko iturri fidagarriak bilatuz.
KPSII 5. Epe laburreko helburuak planifikatzen ditu, ikaskuntza autorregulatuko estrategiak erabiltzen ditu eta autoebaluazioko eta koebaluazioko prozesuetan parte hartzen du, bere mugak ezagutzuz eta ezagutza eraikitzekeo prozesuan laguntza bilatzen jakinez.	KPSII 5. Epe ertainerako helburuak planifikatzen ditu eta atzeraelikadurako prozesu meta-kognitiboak garatzen ditu, ezagutza eraikitzekeo prozesuan dituen akatsetatik ikasteko.

HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

Herritartasunerako konpetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta, bai eta munduko gertaeren ezagutzan eta iraunkortasunarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromiso aktiboan ere. Horren barruan sartzen dira alfabetatze zibikoa, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratikoaren berezko balioen onarpen kontzientea, gure garaiko arazo etiko handiei buruzko hausnarketa kritikoa eta 2030 Agendan planteatutako Garapen Iraunkorrerako Helburuekin bat datorren bizimodu iraunkorraren garapena.

Deskriptore operatiboak

LH AMAIERAN, IKASLEAK...	DBH AMAIERAN, IKASLEAK...
HK1. Bere nortasunari eta kulturari buruzko gertaera historiko eta sozial garrantzitsuenak ulertzen ditu, bizikidetza-arauei buruzko gogoeta egiten du, eta modu eraikitzailean, elkarriketan eta inklusiboan aplikatzen ditu edozein testuinguruan.	HK1. Bere nortasunaren dimentsio sozialari eta herritarrari buruzko ideiak aztertzen eta ulertzen ditu, bai eta identitatea zehazten duten gertaera sozial, historiko eta arauemaileei buruzkoak ere, eta arauak, enpatia, ekitatea eta espiritu konstruktiboa



	errespetatzen ditu besteekiko elkarreraginean, hainbat testuinguru sozioinstituzionaletan.
HK2. Erkidegoko jardueretan parte hartzen du, erabakiak hartzen ditu eta gatazkak konpontzen ditu, Europar Batasunaren eta Euskal Autonomia Estatutua esparruko prozedura demokratikoak, giza eta haur eskubideak, aniztasunaren balioa eta genero-berdintasuna, gizarte-kohesioa eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak errespetatuz.	HK2. Europako integrazio-prozesutik, Euskal Autonomia Estatututik eta giza eta haurren eskubideetatik datozen printzipioak eta balioak aztertzen eta onartzen ditu, eta, horretarako, Erkidegoko jardueretan parte hartzen du, hala nola erabakiak hartzean edo gatazkak konpontzean, jarrera demokratikoarekin, aniztasunarekiko errespetuarekin eta genero-berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, garapen iraunkorrarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromisoarekin.
HK3. Gaurkotasuneko balio eta arazo etikoei buruz hausnartu eta hitz egiten du, eta kultura eta ideologia desberdinak errespetatzeko, ingurunea zaintzeko, aurreiritziak eta estereotipoak baztertzeko eta diskriminazio eta indarkeria mota ororen aurka egiteko beharra ulertzen du.	HK3. Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etikoak ulertzen eta aztertzen ditu, norberaren eta besteen balioak kritikoki kontuan hartuz, eta bere iritziak garatuz, eztabaida moralari aurre egiteko elkarrizketarako, argudiatzeko, errespetuzko eta edozein diskriminazio edo indarkeriaren aurkako jarreraz.
HK4. Giza ekintzen eta ingurunearen arteko harreman sistemikoak ulertzen ditu, eta bizi-ohitura iraunkorrak hartzen hasten da, biodibertsitatea kontserbatzen laguntzeko, tokiko ikuspegitik zein ikuspegi globaletik.	HK4. Jarduera lokal eta globalen arteko interdependentzia, ekodependentzia eta interkonexioko harreman sistemikoak barne hartzen ditu, eta modu kontzientean eta motibatuan hartzen du bizimodu iraunkorra eta ekosozialki arduratsua.



EKINTZAILETZA-KONPETENTZIA

Ekintzailtzarako konpetentziak aukera eta ideiekin jarduteko bizi-ikuspegia garatzea eskatzen du, beste pertsona batzuentzako baliozko emaitzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza espezifikokoak erabiliz. Hainbat estrategia eskaintzen ditu: beharrak eta aukerak hautemateko begirada egokitzea; sormen eta berrikuntza prozesuen barruan, pentsamendu estrategikoa, sormena, irudimena eta hausnarketa etiko, kritiko eta konstruktiboa erabiliz ideiak sortu eta birplanteatzea; ingurunea aztertu eta ebaluatzen pentsamendua entrenatzea; eta ikasteko, arriskatzeko eta ziurgabetasunari aurre egiteko jarrera piztea. Era berean, informazioan eta ezagutzan oinarritutako erabakiak hartzea eta beste pertsona batzuekin modu arinean lankidetzan aritzea eskatzen du, motibazioz, enpatiaz eta komunikazio- eta negoziatio-trebetasunez, planteatutako ideiak ekintzara eramateko balio sozial, kultural eta ekonomiko-finantzarioko proiektu iraunkorrak planifikatuz eta kudeatuz.

Deskriptore operatiboak

LH AMAIERAN, IKASLEAK...	DBH AMAIERAN, IKASLEAK...
<p>EK1. Aurre egin beharreko beharrak eta erronkak ezagutzen ditu, eta ideia originalak lantzen ditu, sormen- trebetasunak erabiliz eta ideiek ingurunean sor ditzaketen ondorioez jabetuz, hautemandako beharrei erantzungo dieten konponbide baliotsuak proposatzeko.</p>	<p>EK1. Beharrak eta aukerak aztertzen ditu, eta erronkei zentzu kritikoarekin aurre egiten die, iraunkortasunaren balantzea eginez, ingurunean izan dezaketen eragina baloratuz, ideia eta irtenbide berritzaileak, etikoak eta iraunkorrak aurkezteko, eremu pertsonalean, sozialean, kulturean eta ekonomikoan balioa sortzera bideratuta.</p>
<p>EK2. Norberaren indarguneak eta ahuleziak identifikatzen ditu, nork bere burua ezagutzeko estrategiak erabiliz; oinarritzko elementu ekonomiko eta finantzarioak ezagutzen hasten da, eta horiek eguneroko bizitzako egoera eta arazoei aplikatzen dizkie, jatorritzko ideia baliotsuak ekintzara eraman ditzaketen baliabideak hautemateko.</p>	<p>EK2. Norberaren indarguneak eta ahuleziak ebaluatzen ditu, autoezagutzako eta autoeraginkortasuneko estrategiak erabiliz, eta ekonomiaren eta finantzen funtsezko elementuak ulertzen ditu, ekonomia- eta finantza-ezagutzak aplikatzen dizkie jarduera eta egoera zehatzei, eta lankidetzan- eta talde-lana erraztuko duten trebetasunak erabiltzen ditu, ekintzara esperientzia ekintzaile baliotsua eramango duten beharrezko baliabideak biltzeko eta optimizatzen.</p>



<p>EK3. Ideia eta konponbide originalak sortzen ditu, zereginak planifikatzen ditu, beste batzuekin eta taldean lan egiten du, egindako prozesua eta lortutako emaitza baloratuta, ekimen ekintzaile bat aurrera eramateko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.</p>	<p>EK3. Ideia eta konponbide baliotsuak sortzeko prozesua garatzen du, eta erabakiak hartzen ditu, modu arrazoituan, planifikatzeko eta kudeatzeko estrategia arinak erabiliz. Egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten du, prototipo berritzaileak eta baliozkoak sortzeko prozesua burutzeko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.</p>
--	--

KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA

Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako konpetentziak berekin dakar ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea, bai eta hainbat arteren eta beste kultura-adierazpenen bidez ere. Norberaren ideiak ulertzen, garatzen eta adierazten ahalegintzea eskatzen du, bai eta gizarteko kide izatearen zentzua izatea edo gizarteko funtzio bat hainbat modutan eta testuingurutan betetzea ere, eta nortasuna aberastea kulturen arteko elkarriketaren bidez.

Deskriptore operatiboak

LH AMAIERAN, IKASLEAK...	DBH AMAIERAN, IKASLEAK...
<p>KAKK1. Edozein garaitako kultura- eta arte-ondarearen funtsezko alderdiak ezagutzen eta errespetatzen ditu, kulturarteko ingurune batean kultura-desberdintasunak eta horiek errespetatzeko beharra ulertuta.</p>	<p>KAKK1. Edozein garaitako ondare kultural eta artistikoaren funtsezko alderdiak ezagutu, kritikoki estimatu, errespetatu eta sustatzen ditu, eta bere nortasuna eraikitzeke kultura- eta arte-aniztasunari datxekion adierazpen-askatasuna eta aberastea baloratzen ditu.</p>
<p>KAKK2. Ondareko arte- eta kultura-adierazpen garrantzitsuenen espezifikotasunak eta intentzioak ezagutu eta horietaz arduratzen da, bere hizkuntza eta elementu teknikoaren bidez, hainbat baliabide eta euskarritan, etengabe aldatzen ari den testuinguru batean.</p>	<p>KAKK2. Gozatu, ezagutu eta aztertu autonomiaz ondareko adierazpen artistiko eta kultural nabarmenenen berezitasunak eta intenzionalitateak, haien hizkuntza eta elementu teknikoaren bidez, edozein bitarteko edo euskarritan.</p>
<p>KAKK3. Bere nortasuna aberasten</p>	<p>KAKK3. Ideiak, iritziak,</p>



<p>eta eraikitzen du, ingurunearekin eta gizartearekin elkarreraginez, adierazpen kultural eta artistiko sortzailearen bidez, bere gorputza integratuz eta konpetentzia afektiboak garatuz, besteekiko jarrera ireki eta inklusiboarekin.</p>	<p>sentimenduak eta emozioak sormenez eta modu irekian adierazten ditu. Autoestimua, sormena eta pertinentzia-sena garatzen ditu, adierazpen kultural eta artistikoaren bidez, enpatiaz eta lankidetzazko jarreraz.</p>
<p>KAKK4. Irudikapenak eta arte-adierazpenak sormenez erabiltzen ditu, teknika plastikoak, ikusizkoak, ikus-entzunezkoak, soinudunak eta gorputzezkoak erabiliz, proposamen artistiko eta kulturalak sortzeko, lankidetzan.</p>	<p>KAKK4. Interpretazioaren, exekuzioaren, inprobisazioaren eta konposizio musikalaren bidez produktu artistikoak eta kulturalak sortzeko oinarrizko baliabide/euskarri plastikoak, ikus-entzunezkoak, soinuzkoak eta gorputzezkoak ezagutzen, hautatzen eta sormenez erabiltzen ditu. Eskaintzen dizkioten garapen pertsonal, sozial eta ekonomikorako aukerak identifikatzen ditu.</p>



2. METODOLOGIA

2.1. Ikuspegi orokorra

Ikastolan garatu beharreko irakaskuntzari buruz, oinarritzat ikuspegi **sozio-eraikitzailea** hartuko dela esan dugu sarrerako atalean. Horren bidez adierazi nahi da:

- Ikasleak ezagutza aurretik dituen ideia eta ezagutzen gainean eraikitzen duela, aurrez dituzten ezagutza-sistemetatik abiatuta, informazio berria lehendik zutenarekin erlazionatuz.
- Ikasleen arteko elkarreraginari garrantzi handia ematen zaiola: alde batetik ikaskuntzarako bitarteko aberatsa delako; beste aldetik, gure ikasleek gerora gizartean horrelako egoerei egin beharko diete aurre gehienetan, eta horretarako prestatu egin behar direlako.

Konpetentzia terminoaren definizioan, honako osagaiak aipatzen genituen:

- a) baliabideen multzoa eskuratzea.
- b) baliabide horien mobilizazioa bateratua eta integratua subjektuaren aldetik.
- d) **egoera** bati irtenbidea eraginkortasunez emateko.

Konpetentzietan oinarritutako planteamenduan, ezagutzak egoera eta testuinguru zehatzetan erabiltzearen garrantzia azpimarratzen da. Esate baterako, aritmetikako arauak, gertaera historikoei edota giza gorputzaren funtzionamenduari buruzko ezagutza beharrezkoa da, baina ez horrenbeste bere baitan, baizik eta, batez ere, aritmetikako arauak bizitza errealeko egoera batean aplikatzeko, bizikidetzaz arazoei irtenbidea ematerakoan ezagutza historikoak erabiltzeko, edota ohitura osasungarriak garatzerakoan giza gorputzaren ezagutza aplikatzeko. Kontua ez da jakintza eta egiten jakitea, ezagutza eta ekintza, teoria eta praktika kontrajartzea, horiek integratzea baizik. Konpetentzia izateko, ezinbestekoa da ezagutzak edo kontzeptuzko jakintzak, prozedurak, jokabide-arauak edo jarraibideak, edota zeregin bat gauzatzeko modua ematen duten jarrerak edota prestutasuna modu bateratu eta koordinatuan erabiltzea.

Horrek guztiak baditu ondorioak metodologian ere:

- Metodologiak gizabanako bakoitzaren konpetentzien garapena bultzatu behar du, banakako lanaren bidez eta ikasleen ezaugarrietara egokituz, talde-lanaren bidez eta irakaskuntza sozializatuko teknikak eta baliabideak erabiliz eta irakaskuntza aktibo eta sortzaileko teknikak eta baliabideak erabiliz.



Konpetentziak definitzeko, egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez aritzeko gaitasuna dela esaten badugu, konpetente izaten ikasteko, egoerak, proiektuak, problemak eta zereginak behar dira, eta beroriek testuinguru problematiko errealetan, esanguratsuetan eta egokietan egon behar dute kokatua; hau da, hezkuntza-helburuak lortzen lagundu behar dute, eta modu integratu batean gaitasun multzo bat **mobilizatzea eta transferitzea** eskatu behar dute. Guztiak aukera eman behar du ikasleek plano guztietan ikas dezaten: plano kognitiboan, komunikatiboan, sozialean, afektiboan, ekintzailetan.

Ikasgelako metodologia aplikatzerako unean, konpetentzietan oinarritutako ikuspegiaren atzean dauden zenbait **printzipio pedagogiko** hartu behar dira kontuan:

- Eskola-baliabidearen asmo nagusia ez da informazioa eta ezagutzak transmititzea, oinarrizko konpetentziak gararaztea baizik. Baina informazioa eta ezagutzak nahitaezkoak dira konpetentziak garatzeko.
- Irakaskuntza-prozesuen helburuak ez du izan behar soilik ikasleek diziplinak ikastea; horrek adinako garrantzia edo handiagoa du, adinaren arabera, beren eredu mental arruntak, pentsamendu-eskemak berreraikitzeak.
- Oinarrizko konpetentzien ikaskuntza esanguratsua eragiteko, ezinbestekoa da ikaslea ezagueraren bilaketa-prozesuetan, azterketan, esperimendazioan, gogoetan, aplikazioan eta komunikazioan esku hartzea bultzatzea.
- Oinarrizko konpetentziak garatzeko erarik onena, egoera errealak eta egiazko jarduerak proposatzea da, ezaguera eguneroko bizitzako problemei lotzea.
- Ikaskuntza esanguratsuak ikasle bakoitzaren metakognizioa, ikasteko eta ikasten ikasteko egiten duen bere prozesu berezia ulertzeko eta gobernatzeko duen gaitasuna, bizkortu behar du.
- Berdinen arteko lankidetzaren lehen mailako estrategia didaktikoa da. Lankidetzak elkarrizketa, eztabaida, eta desadostasuna, desberdintasunen errespetua, entzuten jakitea, besteen ekarpenekin geure burua aberastea eta norberaren onena eskaintzeko eskuzabaltasuna izatea eskatzen du. Horrek ez du esan nahi, ordea, bakarkako lanketa alboratu behar denik: arazoei eta egoerei bakarka ere aurre egin behar die ikasleak.
- Konpetentzien garapenean ikaslea aske eta konfiantzaz sentitu behar da, probatzeko, okerrak egiteko, atzera eragiteko eta berriro probatzeko.
- Ebaluazioa elementu formatibotzat hartu behar da, ikasle bakoitzak indartu beharreko alderdiak eta lortutako helburuak identifikatzeko, eta gizabanako bakoitzarengan ulermenerako eta jarduteko konpetentziak garatzen laguntzeko.
- Konpetentzien garapenean irakasleak betetzen duen zeregina ikasleen ikaskuntzaren tutoretza gisa har daiteke,



ikaskuntza-prozesuak diseinatuz, planifikatuz, antolatuz, bizkortuz, lagunduz, ebaluatuz eta birbideratuz.

Irakaskuntza ulertzeko modu horren aplikazioa aldatu egiten da hezkuntza-etapa batetik bestera: ez dira gauza bera Haur Hezkuntzako kompetentzietan oinarritutako irakaskuntza eta Batxilergokoa. Ikus xehetasunak 3. atalean.

2.2. Oinarrizko kompetentzia orokorrak lantzeko prozedura metadiziplinarrak.

Kompetentzia orokorretan oinarritutako irakaskuntzak eragin handia du irakaslearen rolean eta irakasteko metodologian:

- Irakasle guztiak hezitzaileak dira, eta haien funtzioa ikasleak bizitzaren eremu guztietan modu egokian jarduteko prestatzea da. Irakasleen funtzioa ez da "haien" ikas-arloa irakastea bakarrik, gainerako irakasleekin batera ikasten eta pentsatzen, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten, egiten eta ekiten ere irakatsi behar baitute. Horrek guztiak hezkuntzari eta hezkuntzaren irakaskuntzari buruzko ikuspegia aldatzea dakar, eta pentsamenduaren eta irakasleen jardunean aldaketak egiteko eta doitze-premiak ekarriko ditu.
- Hezkuntzaren ikuspegi horrek irakasleak metodologia aktiboak erabiltzera bideratzen ditu. Ikasleak pentsatzen eta ikasten ikasiko du pentsatzeko eta ikasteko egoerak/jarduerak egiten baditu; komunikatzen ikasiko du komunikazio-jarduerak egiten baditu; elkarrekin bizitzen ikasiko du, taldean lan egiten, parte hartzen eta arazoak konpontzen baditu; norbera izaten ikasiko du bere buruaren kontrola eta estimua izateko eta era autonomoan ekiteko aukerak baditu; egiten eta ekiten ikasiko du inizatiba eta ardurak ematen bazaizkio.
- Hauxe da jarduera aberatsaren ezaugarriak zein diren jakiteko irizpidea: zenbateraino laguntzen du jarduera horrek pentsatzen eta ikasten ikasteko? Komunikatzen ikasteko? Elkarrekin bizitzen ikasteko? Izaten ikasteko? Egiten eta ekiten ikasteko? Jarduera guztiek ematen dute horretarako aukera, bakoitzak bere tamainan.

Ikuspegi horrek nahitaez eskatzen ikastetxean prozedura metadiziplinarren diseinu bateratu bati jarraitzea, etapa guztien arteko. Eginkizun horretarako, Ikastolen Elkarteak garatutako metodologian eta materialetan (Proiektu propioak, KIMU eta EKI proiektuak, Erronkak) oinarrituko da nagusiki San Benito Ikastola, etapa eta ziklo desberdinen jarraikortasuna ziurtatzeko, eta ikas-arlo desberdinen bateratasuna



errazteko. Erreferentzia modura, jarraian, aurkezten da “Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumean” proposatzen zen “prozedura metadiziplinarren bankua”.



A.- Ikasten eta pentsatzen ikasi
A1.- Ikaskuntza-estrategiak eta norberaren lana antolatzea
1.- Ideiak argitzeko, sortzeko eta ebaluatzeko jarraibideak
2.- Eskemak egiteko jarraibideak
3.- Kontzeptu-mapak egiteko jarraibideak
4.- Laburpenak egiteko jarraibideak
5.- Testu edo dokumentu bati buruzko oharrak hartzeko, ahozko azalpen bat egiteko edo ikus-entzunezko proiektio bat egiteko urratsak
6.- Testu bat ikasteko edo memorizatzeke eman beharreko urratsak
7.- Metakognizioa garatzeko jarraibideak (norberaren ikasteko moduari buruzko gogoeta)
8.- Lan pertsonala antolatzeko jarraibideak: agenda, paper-zorroa, etab.
A2.- Informazioa bilatzea eta antolatzea
9.- Informazio bibliografikoa bilatzeko jarraibideak
10.- Informazioa bilatzean, ordenagailua eta bestelako baliabide teknologikoak erabiltzeko jarraitu beharreko aholkuak
11.- Taulak eta diagramak erabiliz, informazioa antolatzeko jarraibideak
B. Komunikatzen ikasi:
Testu idatziak, ahozkoak eta ikus-entzunezkoak ulertzea eta ekoiztea
12.- Ahozko mezuak ulertzeko jarraibideak
13.- Polikudeaturiko mintzaldiak (elkarrizketetan) ekoizteko jarraibideak
14.- Monokudeaturiko mintzaldiak (bakarrizketan) ekoizteko jarraibideak
15.- Testu idatziak ulertzeko jarraibideak
16.- Testu generikoak egiteko jarraibide orokorrak
17.- Txosten deskribatzaileak egiteko jarraibideak
18.- Balioespen edo kritika-txostenak egiteko jarraibideak
19.- Testu-iruzkinak egiteko jarraibideak
20.- Lan monografikoak egiteko jarraibideak
21.- Gai baten ahozko aurkezpena edo azalpena egiteko orientabideak
C.- Egiten eta ekiten ikasi:
Erabakiak hartzea, ekintzaile izatea eta arazoak eta gatazkak konpontzea
22.- Ikerketak egiten hasteko jarraibideak
23.- Prozesu ekintzailearen faseak aplikatzeko jarraibideak: fase analitikoa, sortze fasea, berritze fasea eta ebaluazio fasea
24.- Gatazkak aztertzeke jarraibideak
25.- Erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko jarraitu beharreko protokoloak
D.- Elkarrekin bizitzen ikasi:
Bizikidetza eta talde-lana
26.- Bizikidetza-arauak egiteko, aplikatzeko eta berraztertzeke jarraibideak
27.- Ikasgelako eztabaidetan kide, bitartekari eta moderatzaile gisa parte hartzeke arauak eta jarraibideak
28.- Talde-lanak egiteko orientabideak
29.- Bilerak egiteko jarraibideak
E.- Norbera izaten ikasi:



30.- Emozioak kontrolatzeko eta jokabideak erregulatzeko jarraibideak
31.- Autoestimua baikorra eta errealista izateko jarraibideak.
32.- Bere buruarenganako konfiantza izateko eta besteengandik estimatua eta balioetsia sentitzeko jarraibideak.
33.- Bere kasa pentsatzeko, erabakitze eta jarduteko jarraibideak, eta hartutako erabakien ardura bere gain hartzeko jarraibideak.



2.3 Etapetako metodologiak

2.3.1 Haur Hezkuntza:

Haur guztien garapen osoa eta orekatua lortzen laguntzea da Haur Hezkuntzaren xedea, garapen horren dimentsio guztietan. Jaio ondorengo lehen urteak oinarri-oinarrizkoak dira pertsonaren garapen osoa bere eremu guztietan bultzatzeko eta sendotzeko.

Eta honetan, haurrek era globalean edo orokorrean adierazten dituzte gauzak; hala erlazionatzen dira, eta ikasi ere halaxe ikasten dute. Bere izatearen osotasuna inguruko munduarekin dituen harreman guztietan adierazten eta garatzen du haurrak. Bere dimentsio guztiak (afektibo-emozionala,, sentso-motorea, soziala eta kognitiboa) oso estuki lotuta daude, banaezinak dira, eta ezin dira bakoitza bere aldetik garatu. Honegatik hain zuzen ere haurrentzat eraikitzen den testu-inguruak garrantzi berezia hartzen du, bertan egongo diren espazio antolaketa, material eta proposamenek.

Beraz, testu-inguru aberatsak prestatzea izango da haur hezkuntzako metodologiaren ardatza, non haur bakoitzak bere garapenean aurrera egiteko aukera izango duen.

Hezitzaileek espazioei, materialei eta besteekin erlazionatzeko aukerei buruz egin ditzaketen proposamenek eragina dute haurren garapenean.

Horregatik ezinbestekoa da lehenengo 6 urteetako haurren garapena ezagutzea eta garapeneko etapa bakoitzean zer behar duten jakitea, garapen honetan helduaren eskuhartzeak nolakoa izan behar duen zehaztea ere bai.

Hau guztia kontuan hartuta Haur Hezkuntzako metodologiak jaso beharreko puntuak (haurren garapena, helduaren eskuhartzea, mugimendu askea, espazioaren antolaketa...).

Testuinguru aberatsa eraikitzeke garaian ezinbestekoa da besteak beste esplorazio sensoriala ahalbidetuko duen eta esperimintatzeko aukera anitzak eskeintzen dituzten proposamenak eskeintzea. Hala nola lehenengo ziklon altxorren otarra, jolas euristikoa eta tailerrak txertatzen dira besteak beste.

Mugimenduaren garapen autonomia ahalbidetzea ere aldi honetako lehentasunetako bat izango da.

Bigarren zikloari dagokionez, kompetentzien garapenean oinarritzen diren proiektu propioek pixkanaka garrantzi hartzen joaten dira HH3ko bigarren hiruhilabetetik aurrera.



Proiektukako lana ikaskuntzaren ikuskera konstruktibistan oinarritzen da, non esku-hartze pedagogikoa haurren ikaskuntza esanguratsua sustatzera bideratuta dagoen.

Ezagutza hurrek modu aktiboan lantzea bezala planteatzen du, eta ez datu batzuk pasiboki jasotzea bezala. Edukiak bizi diren esperientziatzat hartzen ditu.

Lan-proiektuak ulermenerako irakaskuntzan oinarritutako eskolatzearen zentzua ulertzeko modu bat dira, eta horrek berekin dakar ikasleek ikerketa-prozesu batean parte hartzea, beraienez zentzua duena (ez erraza delako edo gustatzen zaielako) eta ikasteko hainbat estrategia erabiltzen dituen; norberaren ikaskuntza planifikatzeko prozesuan parte har dezakete, eta malguak izaten, bestea kontutan hartzen eta beren ingurune pertsonal eta kulturala ulertzen laguntzen die. Jarrera horrek errealitatea interpretatzen laguntzen du. Horrela ulertutako proiektuek errealitatearen interpretazioaren ikaskuntzan oinarritutako eskola-ezagutza irudikatzeko beste modu bat adierazten dute, ikasleen eta irakasleen bizitzaren eta diziplinek eta diziplinakoak ez diren beste jakintza batzuek egiten duten ezagutzaren arteko harremanak ezartzera bideratuta. Hori guztia, gai edo arazo bat ikastean jarraitutako prozesua ikertzeko, interpretatzeko eta aurkezteko estrategiak garatzen laguntzeko, bere konplexutasunagatik ikasleek eta irakasleek beren burua eta bizi diren mundua hobeto ezagutzea ahalbidetzen baitu .

Beraz, oinarri pedagogiko batzuei buruz hitz egin dezakegu:

- Aurkikuntza bidezko irakaskuntza.
- Ikaskuntza esanguratsua.
- Globaltasuna.
- Hizkuntzaren ikuspegi konstruktibista.
- Ebaluazio hezigarria.

Lehenengo zikloa (0-3 zikloko metodologia)

Hasi aurretik esan nahiz eta etapa berdinari dagokion, 0-3 zikloak badituela zenbait behar eta garapen ezaugarri esku-hartze ezberdina eskatzen dutenak. Batez ere lehen bi urtetan egiten dira nabarmenak ezaugarri hauek: atxikimendua; oinarrizko beharrak: loa, elikadura, higiene, afektibitatea eta autonomi maila baxua besteak beste.

Hau dena kontutan harturik 0-3 zikloan lehentasuna du haurraren oinarrizko behar hauek asetzeak eta honetaz gain atxikimendu jokabideari garrantzi berezia ematen diogu.

6-7 hilabetetatik aurrera haurra berarentzat erreferentea den pertsona bati lotuta dago (normalean ama), hori dela eta honetaz banatzeak erreakzio ezberdinak sortzen dizkio eta erreakzio hauek



normalean 3 alditan ematen dira (banaketak irauten duen denboraren arabera):

- PROTESTA: Negarra, ama bilatzea...
- DESESPERAZIOA: Kezka, tristura, esplorazioa gutxitzen da...
- ATXIKIMENDU EZA: Ez du ama bilatzen, bakarrik geratzeko beldurra...

Atxikimendu jokabidea gainditzeko ezinbestekoa da egokitzapenaldi bat, haurrak poliki-poliki berarekin egon behar duten hezitzaileetara egin beharko du atxikimendu transferentzia eta espazio berrietara egokitu beharko du. Hau dela eta lehen bi urtetan 9 egunetako egokitzapena dago aurreikusita eta HH2. mailan lehen aldiz hasten diren haurrentzat 5 asteetako egokitzapen aldia dago. Askoentzat gutxieneko egokitzapenaldi hau ez da nahikoa izango eta nahi duenak luzatu egin dezake, helburua haurra ahalik eta modu lasai eta naturalenean espazio eta pertsona berriei egokitzea da.

Honenbestez haurraren garapena honela ulertzen dugu:

- Haurrak **berezko jokaerak** ditu jaiotzetik: atxikimendua, esplorazioa, ezezagunei beldurra eta berdinen arteko harremana.
- Berezko jokaera horien garapen egokiak markatuko du haurraren ikaskuntza-prozesu osoa.
- Haurrak **munduaren pertzepzio globala du eta bere jarduera eta egiteak globaltasun** horrek markatuko ditu.
- Haurra **gaitasun ezberdinen jabe** da, eta eguneroko bizitzak gaitasun hauek garatzen lagunduko dio.
- **Ikaskuntza eraikuntzarako barne-prozesua da**, beraz, haurra bera da arduraduna.
- **Jolasa** ezagutza garatzeko tresna du haurrak.
- Haur bakoitzak berezko jokaerak "kudeatzeko" era garatuko du, munduaren pertzepzio eta egite globala era batekoa izango du, ikaskuntzaren barne-eraikuntza berea propioa izango du, gaitasunen garapena bere erritmora egingo du... Horixe da **aniztasuna**.

ESKU-HARTZEA honako izango da :

- Haurraren garapen osasuntsua lortzeko, egoera guztietan **ziurtasun afektiboa** bermatzea ezinbestekoa da.
- **Manipulazioa, espermentazioa, esplorazioa**: jolasa izango da haurraren garapen pertsonala eta ikaskuntza bermatzeko tresna. Testuinguru aberatsak eta erronka berriek bermatuko dute.
- Haurren eta haur eta hezitzaileen arteko lankidetzak eta interakzioak haurraren ikaskuntza garatzen lagunduko dute.
- **Ikuspegi globalari erantzungo** dioten egoera, jarduera, erronka eta testuinguruak eskainiko zaizkio haurrari.
- **Ikuspegi eraikitzaileak** dituen barne pausoak bermatzen laguntzea ezinbestekoa izango da haurrari ikaskuntza-prozesuan laguntzeko: aurrezagutzaren garantiza, ikaskuntza esanguratsua (interesa,



motibazioa, funtzionalitatea...). Gatazka kognitiboaren ebazpena eta metakognizioa.

- **Haurren gaitasunen garapena** bermatzeko testuinguru aberatsak eskaintzea.
- Hezkuntzan esku hartzen duten pertsonen artean **elkarrizketa eta elkarlana sustatzea**.
- Haurra garapen orokorraren eta ikaskuntzaren **protagonista** izatea.
- **Aniztasunak** era askotako trataerak izatea.

2.3.2 Haur Hezkuntza: bigarren zikloa

Globalizazioa

Haur Hezkuntzaren ezaugarri nabarmenetako bat haurren izate **globala** da. Haurren ekintza eta jarduera guztietan eta inguruko munduarekin dituen harremanetan, pertsonaren dimentsio guztiak oso estuki lotuta daude, banaezinak dira, eta ezin dira bakoitza bere aldetik garatu.

Horregatik, ikuspegi **globalizatzaile** batetik, haurren garapenaren alderdi guztiak elkarrekin lantzea ahalbidetuko duen hezkuntza-markoa sortu nahi da.

Esperientzia-eremu guztiak batera, **interesgune** baten inguruan garatzen dira. Interesgune horren aurkezpeneko abiapuntua, horren arabera hautatu, moldatu edo sortu den ipuin bat da.

Honenbestez, unitate didaktikoen antolaketaren ardatza interesguneen garapen tematikoa izango da. Jarduerak sekuentzia tematiko horien arabera lotuz joango dira; eremuetako jarduerak gaiaren segida logikoan eskainiko dira. Eremuak errealitatean banaezinak direnez, jarduera bakoitzak eremuetako helburu didaktikoak landu ditzake.

Ikasleek gaiaren bilakaera jarrai dezaten, unitatearen ikas norabidea marrazkien bidez islatuko da haien lan-koadernoan. Ikas norabideak hainbat funtzio ditu unitatean zehar: hasieran, aurre ebaluazioa eta sarrerako motibazioa bideratuko ditu; tartean, gaiaren bilakaeraren sekuentzia tematikoak identifikatzen lagunduko du; bukaeran, sintesia eta azken balioespena egiteko modua eskainiko du.

Aldi berean, Haur Hezkuntzako marko honetan txertatzen da Ikastolaren curriculumeko ardatz nagusietako bat: hizkuntzaren (euskararen) trataera. Euskarari zehar-lerro trataera esplizitua ematen zaio, eremu guztiak besarkatzen baititu. Jardueretan sortutako hizkuntza-erabilerak aztertu eta definitu egiten dira, eta haien lanketa helburu didaktikoetan irudikatzen da.



Hizkuntza lantzeko proposamen espezifikoak ere egiten dira. Proposamen berezi horietan, haurren hizkuntza-abiapuntuak kontuan hartu dira, bakoitzari egokitutako proposamen didaktikoak eskainiz.

Haur Hezkuntzan aspaldian hasitako bideari jarraituz, hizkuntza idatziaren sarrera ere egiten da. Komunikazio-hizkuntza horren inguruko haurren bizipen naturaletatik abiatuz, idatziaren behaketa, interpretazioa eta haren bidezko komunikazioa lantzen dira. Hizkuntza idatziarekiko motibazioa eta jarrera baikor bat garatzea da helburu nagusia.

Unitate didaktikoak ere aurrera eramaten dira lehenengo zikloan:

HH0n: ALTXORRAREN OTARRA esplorazio jolasa da.

HH1en: JOLAS HEURISTIKOA material ezberdinak eta kopuru handitan manipulatzeko aukera ematen du.

HH2n: Maila honetan U.D.ak urtaroen inguruan eginak daude eta honen harian izaera ludikoa duten jarduera ezberdinak proposatzen zaizkie haurrei: muralak, marrazkiak, gaiarekin lotutako abestiak eta ipuinak, garaian garaiko fruta eta barazkiak ezagutzea eta manipulatzeari...

Bestalde, "tailer-gelak" lanketa interesgarri eta dibertigarriak burutzeko aukera ematen du: material ezberdinak manipulatu, ogi birrinduarekin jolastu, eraikuntza, denen artean mural erraldoiak egin etab.

Aktibitate mental jarraikia eta trinkoa sustatzea da helburu nagusietako bat, apendizaiaren eraikuntza autonomia eta konpartitua bultzatuz. Haurra gatazka kognitiboen aurrean jartzen saiatzen gara, bere garapen-maila errespetatuz, garapen-eremu hurbila bilatuz eta bertan eraginez. Ez da pertzepzio pasiboa bilatzen, buru jarduera baizik, eztabaida, berreraikitze pertsonala, interakzioa. Esku-hartzea jarduera eta harreman guztietan ildo honetatik bideratzen bada ere, badaude bi jarduera konstante interbentzio mota hau esplizituki bideratzen dutenak eta unitate guztietan azaltzen direnak:

Ondorioz, garrantzi handia ematen zaio prozesu horiek guztiak konpartitzeari, hitzez adierazteari, irakaslearen aldetik jarrera irekia azaltzeari, erantzun dibergenteak onartzeari eta eztabaidatzeari... Hori guztia behar bezala bidera dadin, emaitza-maila desberdinak onartu beharra dagoela proposatzen da.



2.3.3. LEHEN HEZKUNTZA

Ikastolan Lehen Hezkuntzako curriculumaren ardatza KIMU eta EKI proiektuak dira, eta proiektu horietako ikuspegi metodologikoa hartzen da erreferentzia nagusi modura. Haur Hezkuntzan hasitako ibilbidearen jarraipena da eta DBHrako zubi lana egiten du. Haur hezkuntzaren jarraipena izanik, etapa hartarako aipatu ditugun ezaugarri nagusiek jarraipena dute etapa honetan ere: ikuspegi globalizatzailea erabiltzen da curriculuma planifikatzeko unean, eta ikuspegi sozio-eraikitzailearen printzipiotik abiatzen da irakaskuntza-jarduna.

Metodologia ikaskuntza-prozesua kudeatzeko hautatzen den bidea edo estrategia da, prozesu horretan parte hartzen duten elementu guztiak kontuan hartuz. Irakatsi eta ikasteko prozesuan parte hartzen duten aldagaien aurrean egindako hautaketan emaitza dela esan genezake. Kimu proiektuan, aldagai horien inguruko hautaketak egiteko, konpetentzien arabeko hezkuntzaren ikuspegia eta ikaskuntzaren ikuspegi sozioeraikitzailea hartzen dira kontuan.

Izan ere, ikaskuntzan eragina du ikaskuntza gertatzen den testuinguruak. Eragin hori ikaskuntzarako positiboa izatea ekarriko dute irakasle taldearen jarrerak, jokabideak nahiz ekintza eta testuinguruarekiko erabaki egokiek. Horregatik, irakaskuntza-prozesuan kontuan hartzekoak dira: giroa, irakasleen jarrera eta ekintzak, denboraren kudeaketa, espazioaren antolaketa, materiala...

Irakasleak ikasleen ongizate prozesu osoa zaintzea eta haiengan interesa eta jakin-mina sustatzea gakoa da, errespetua eta lankidetzat sustatzea, akatsak ikaskuntzaren parte direla azaltzea eta itxaropen handiak jartzea ikasle bakoitzarengan.

Ikaskuntza prozesua abiarazteko, ikasleen errealitatetik hurbil dauden egoerak eta ikasleen bizipenak hartzen dira abiapuntutzat, manipulaboki hurbiduz jakintzagai berrietara, jolastuz, eta abar. Gela ezagutu eta haren egunerokoko parte den irakasleak irakaskuntza-prozesua diseinatu eta praktikara eramaterakoan horretarako aukera gehiago ere izango ditu eta haiek probesten ditu.

Aipatu moduan, irakastea errealitatetik abiatu ondoren, ikaskuntza errealitatera bueltatzen da: ikasitakoak inguratzen duen munduarekin erlazionatzea, sustatzea hura ulertzeko edo bertan eragiteko erabil ditzaten, ikasitakoa eremu askotariko egoeretan erabiltzeko adibideak ematea. Aparteko garrantzia ematen zaio ikaskuntza errealitatera bueltatze horri eta, hain zuzen ere, zeregin horri begirako atal zehatz bat badu unitateak: Ikasi eta erabiltzen hasi!. Unitatero agertzen den atal honetan, unitatean zehar ikasitakoaz eta ikasitako horren erabilgarritasunaz hausnartzera bultzatu nahi da ikaslea.



Ikaskuntza bideratzeko irakaskuntza-prozesua egituratzeko, hasieran motibazioa piztea, aurreikuspenak egin eta aurre ezagutzak aktibatzea eta (auto)ebaluaziorako estrategiak abian jartzea. Garapenean, eduki berriak aurkeztea miatu araziz edo eredia emanez, eduki berriak aplikatzeko aukera eskaintzea (praktika akonpainatua eta praktika autonomoa), ikaskuntzak birpasatu eta egituratzea. Amaitzeko, ikaskuntzak mobilizatu eta erabiliz sortzea; ikaskuntzaren hausnarketa egitea eta (auto)regulazioa bideratzea].

Azken batean ikasleei ikasten eta nola ikasten duten ulertzen laguntzea giltzarri da, eta horretarako aktibatu eta birpasatu behar dira aurreko ezagutzak, eduki berriak pausu txikietan aurkeztu, modelatu, galdera onak egin, praktikan akonpainatu, eta metakognizioa eta autorregulazioa sustatu. Horrek ikaskuntza-helburuen jarraikortasun bat egotea eskatzen du, espiralean helburuok behartu eta sakontzeko.

Ikaskuntza-prozesua kudeatzerakoan kontuan hartu beharreko beste aldagai bat denborarena da. Haren antolaketari dagokionez, ikasmaita sei unitatetan banatu da. Eta unitate bakoitzak, aurrez aipatu moduan 3 atal ditu: hasiera, garapena eta amaiera. Proposamenak gelaratzerakoan, denboraren kudeaketarako kontuan hartu beharreko alderdiak dira horiek. Aintzat hartuz, halaber, ikasleen ikaskuntzarako erritmo eta denborak. Eta finean zainduz bien arteko oreka.

Espazioari dagokionez, hura ikuspegi zabaletik elementu didaktikotzat hartzen da: eskolako espazioa barrukoa nahiz kanpokoa eta eskola inguruko espazioak.

Eskolako espazioak, hori bere osotasunean hartuta, gela baino ingurune konplexuagoa eskaintzen zaie ikasleei. Horregatik, interes bereziko elementu didaktiko bihurtzen da.

Eskola barruan, gela edo eguneroko erreferentziatzeko gunea ongi antolatzeak berebiziko garrantzia du: hainbat zereginen lanketa bultzatu dezan, ahalbidetzeko erabilera malgua, taldekatze desberdinak (U forma, talde txikiak, borobila...), askotariko ikaskuntzarako interesgarriak diren material, objektu eta tresnen erabilera, etab. Zainduz beti ere ikuspegi fisiko nahiz emozionaletik seguruak diren giroak sortzea. Espazioaren antolaketak gelan gertatzea nahi denaren, ikastea nahi denaren, gertatzen denaren eta ikasten denaren argazkia ematen baitu.

Egiten den espazioaren antolaketak erraztuko du askotariko antolamendu sozialak erabili ahal izatea. Eta zeregin desberdinetarako eta helburu desberdinekin askotariko taldekatzeak erabiltzen dira.

· **Talde handiko jarduerak:** Gelako batzarretarako. Azalpenetarako. Arazoak planteatu eta ondorioak finkatzeko.



- **Talde txikiko jarduerak:** talde kohesio eta berdinen arteko laguntza afektibo eta akademikorako, erantzukizun pertsonalak eta taldekoak hartzeko. Ardura desberdinak izanik rotatuz:arduraduna, bozeramaile, idazkari eta ixiltasun arduraduna.

- **Bakarkako lana:** ikasle bakoitzak bere ikaskuntza pertsonala antolatzen. Bere gaitasunen neurriko jardueretan trebatuz (ikaskuntza pertsonalizatua) ikaskuntzan aurrera egiteko.

Lehen Hezkuntzako lehen ziklora bideratuta dago **KIMU** proiektua. Errealitate hurbileko egoeretan kokatzen du ikaskuntza eta ikasleen oinarrizko kompetentziak garatzea du helburu.

3 proposamen didaktikotan egituratu da: Erronka, Euskara eta Literatura eta Matematika.

Proposamen didaktikoen arteko koherentzia, lotura eta osagarritasuna bermatu dira, irakaskuntza-prozesua ikuspegi global batetik diseinatzen laguntzeko. Proposamen bakoitzak, halaber, malgutasunez planifikatzeko eta erabiltzeko aukera eskaintzen du.

ERRONKA. Erronkari irrikaz ekin!

Ikaslearen errealitate hurbilean kokatzen du ikaskuntza. Edukiak ikasleen eguneroko bizitzan gertatzen diren edota gerta daitezkeen egoerekin lotuta daude. Unitate didaktiko bakoitzak interesgune jakin bat du ardatz.

Hainbat diziplinetako kompetentziak eta oinarrizko kompetentzia orokorren lanketa ahalbidetzen du.

Hizkuntzaren ikuspuntu komunikatiboa du oinarrian. Euskara du ardatz eta ingelesa ere txertatu da, ikasleak ingurune eleaniztun batean aritzeko trebatuz.

Proiektuka lan egiteko metodologiari helduz, arazo-egoera bat izango da ikaskuntzaren eragile, sormena eta eztabaida sustatuz eta jakin-mina piztuz.

Ikasleen beharretara eta unean uneko ezaugarrietara egokitu ahal izango dira edukiak, malgutasunez erabiltzeko aukera.

EUSKARA ETA LITERATURA. Sortzaile handiak irakurle txikientzat!

Ikaslearen komunikaziorako kompetentzia garatzea eta irakurleak eta idazleak hezteko du helburu.

Heziketa literarioa lantzeko haur literaturan oinarritzen da. Euskal literaturan erreferente diren idazle eta ilustratzaileek berariaz Kimu proiekturako sorturiko obra literarioak dira proposamenaren oinarri eta abiapuntu.



Idazten eta irakurtzen ikasteko, idatzi eta irakurri egin behar da, eta besteek nola idazten eta irakurtzen duten ikusi; probatuz eta huts eginez, beti ere testuetan esanahiak bilatuz edota esanahia duten testuak sortuz.

Ereduak barneratzen abiatuz, eta hainbat egoera esperimendatuz, sormena sustatuko da. Ikasle sortzaileak, ekintzaileak eta bere buruarekiko konfiantza dutenak hezi nahi ditugulako.

MATEMATIKA. Begirada matematikoa, bizitzarako tresna ezinbestekoa!

Hurbileko errealitatea betaurreko matematikoekin ikustetik abiatuta, inguruan dugun matematikaren funtzioa identifikatzea eta ulertzea du helburu.

Jolasaren bidez, ikasleek matematikarako konpetentzia garatuko dute.

Askotariko estrategiak erabiltzea sustatzen da, ikasleak hausnarketara bideratzeko eta aniztasunari erantzuteko.

Prozesuari eman nahi zaio garrantzia. Kontzeptuak eta prozedurak ulertzen laguntzeko manipulazioa baliatzen da eta zehatzetik abstrakturako ibilbidea antolatzen da.

Matematikako proposamen didaktikoa oinarrizko 5 zutabetan egituratzen da: unitate didaktikoak, desafioak, errutinak, ikerketak eta jokoak.

LHrako **EKI** proiektuan oinarrizko konpetentziak dira hezkuntzaren ardatz: pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten eta egiten, eta egiten eta ekiten trebatu behar du ikasleak. Hau da, bizitza-egoeretan konpetentea izan behar du.

Ezaugarri bereizgarriak:

Euskara eta euskal kulturaren transmisioa du oinarri. Ikaslearen irteera-profila du helburu. Diziplinararteko ikuspegia du oinarrian. Oinarrizko konpetentzia metadiziplinarrek eta diziplina baitako oinarrizko konpetentzien garapena modu ebaluagarrian integratuta daude. Ikaskuntzaren ikuspegi sozio-erakitzailea; ikaskuntza kooperatiboa bultzatzen du. Eleaniztasuna; euskara ardatz duen hizkuntzen planteamendu integratua egiten du. Konpetentzia digitala ere sekuentzia didaktikoetan integratzen du.

Unitate didaktikoaren egitura:

- **Hasiera fasea:** disziplinararteko izaera duen gaia lantzen da.
- **Garapen fasea:** arloko konpetentziak eta egoerak sekuentzia didaktikoen bidez lantzen dira.
- **Amaierako fasea:** disziplinararteko integrazio egoera lantzen da.



Gelaratze proposamenak: Papera eta digitala uztartzen dituen eredu konbinatua da: liburuetakoa eta ekigunea.us atariko proposamena uztartuz, konpetentzia digitalak garatzeko bidea egiten du ikasleak.

Bestalde, emaitza berari baino garrantzi handiago ematen zaio prozesuari: prozesua gertatzen ari den unean sortzen den apendizaiak azpimarratzen da, konpetentziak kontutan izanik. Zenbaitetan prozesua bera da helburua. Adin hauetan, haurrak bere autonomia, bere kuriositatea, iritzi trukaketa, ekimena e.a garatzea beste hainbat eduki bezain edo garrantzizkoagozat jotzen da. Hezkuntza kooperatiboaren ildotik, haurraren afektibitatea eta emozionaltasuna oso garrantzitsuak dira eta alderdi hauek zaintzeko elkarrekintza estiloa eta honekin loturiko hainbat jarduera proposatzen dira: lasaiketa, IKKI, adimen emozionala, elkartasunezko jolasak....

Horrez gain, ikasgelaren kudeaketa oinarrizko aldagai metodologikoa da. Ikaslea ardatz izanik, kudeatzeko erak haurren gaitasunen garapena bultzatu nahiz eragotzi edo atzeratu baitezake: garrantzi handia ematen zaio ikaslea eta irakaslearen, nahiz ikasleen arteko elkarrekintzari. Adin hauetan, eta baita aurrerago ere, interakzio hauen kalitatea bilakatzen baita aldagai nagusienetakoa. Hezkuntza helburuek, ikasketa edukiek, ebaluazio sistemek porrot egin dezakete aldagai hau behar bezala bideratzen ez bada.

2.3.4. DBH

DBHn curriculumak ikasgai desberdinetan banatuko da; ez zaio, beraz, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako globalizazioari jarraituko. Hala ere, garbi dago ikaslea dela ikaskuntzaren ardatza, eta ikasgai guztien ikuspegi orokor koordinatu bat eskaini behar dela, aurreko irakaskuntzan izan dituen printzipioei jarraituko diona. Ikasketa ahalik eta esanguratsuena izan dadin saiatu behar da, hau da, ikasleek aurrez dakitenetik eta beraien ikasteko gaitasunetik abiatuz, informazio berria lehendik zutenarekin erlazioa dezatela, ikasitakoa beste egoera batzuei zentzua aurkitzeko eta haietara eskualdatzeko ahaleginak eginez, horrela, ezagutza-eskemak hobetuz.

Horregatik, Ikastolak ikuspegi eraikitzailean oinarrituko ditu ikaskuntza eta irakaskuntza, diziplinartekotasuna ahalbideratuz, arlo guztien curriculumak marko komun batetik abiatuta garatuz, arlo guztien ikuspegi eta diseinu bateratuan oinarrituz.

Horrela, arlo guztiak konpetentzien araberako proposamen bateratua dute abiapuntu: etapako helburu orokorrak, konpetentzien bidez adieraziak. Arlo bakoitzeko helburu orokorrak etapako helburu orokorrei lotuta joan behar dute.

Arlo bakoitzean konstante edo azpi konpetentzia batzuk garatu ohi dira, eta arlo guztiek badituzte 2 konstante komun: ulermena eta adierazpena. Hortik aurrera, arlo bakoitzak bere konstante espezifikokoak izango ditu (adibidez: hizkuntza arloan, literatura eta hausnarketa gramatikala; matematikan, kalkulua eta planifikazioa...)







Ikasturtean eta etapan zehar, ikasleak arlo bakoitzean helburu didaktiko jakin batzuk landu eta lortu behar izaten ditu. Helburu didaktikoak lorpen behagarriak dira, eta gaitasuna eta gaitasun hori aplikatzen den edukiaren batura biltzen dituzte beren barnean. Edukiak 3 motatakoak izan daitezke: kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak.

Ikasturtean zehar arlo bakoitzean landu nahi diren helburu didaktikoak unitate didaktikoetan biltzen dira, eta unitate didaktiko bakoitzak barne lotura izaten du. Unitate didaktiko horiek berezko zentzu osotua duten eduki multzo baten inguruan moldatu ohi dira (askotan proiektu praktikoa bat ere badutelarik), eta horiek izango dira, beren osotasunean, urteko ikasgaiak eta gelako lanak antolatu eta gidatuko dituztenak. Unitate didaktiko guztiek ondorengo uneak izaten dituzte:

- **Hasiera:** interesa pizteko eta aurre ezagutzak aktibatzeke eta bateratzeko baliagarri gertatu ohi den fasea .Ondorengo helburu zehatzak izan ohi dituzte: 1) lortu nahi diren helburuen eta edukien aurkezpena (*ikasnorabidea*); 2) Gaiarekiko ikasleen alde aurretiko jarrera edo interesa piztu; 3) Aurre ezagutzak aktibatu; 4) Prozesuan zehar gauzatzea proposatzen den Proiektua aurkeztu; 5) Aurre-ebaluazioa bideratu.
- **Garapena:** Ikasleak jaso behar dituen eduki berriak landu eta sakontzen diren atala da garapen-atal hau. Fase honetan helburu didaktikoen lorpena bideratzen da.
- **Amaiera:** unitatea bere osotasunean hartuta, haren eduki garrantzitsuenen sintesia bideratzen da: errepasoko jarduera globalizatuen bidez, proposatutako proiektua gauzatuz... (*ikasitakoa erabiliz*). Hemen neurtzen da ikasleak lortutako ikaste-maila, eta aurrez ezarritako helburu didaktikoak lortu diren ala ez erabakitzen da.

Unitate didaktiko horietan era desberdineko jarduerak egon ohi dira, eta irakaste- eta ikaste-prozesuan, asmo eta helburu jakin batzuei erantzuteko proposatzen ditu irakasle taldeak. Bakoitzak duen zereginaren arabera, ondorengo jarduera motak erabiltzen dira: ikerketa jarduerak, analisi jarduerak, aplikazio jarduerak eta sintesi jarduerak.

JARDUEA TIPOLOGIA	EZAUCARRIAK
 <p>IKERKETA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Galdera irekien bidez, hipotesien formulazioa eta haien egiaztapena bultzatzen dute. • Aurre-ezagutzak aktibazioa bideratzen dute. • Proiektuarekiko ikasleen alde aurretiko jarrera baikorra bultzatzen dute.
 <p>ANALISIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kontestualizatutako egoera bat (testu, esperientzia, etab.) behatuz edo analizatuz, haren aspektu esanguratsuenen edo apendizaiak helburu batekin eskatutakoenen identifikazio gidatua bideratzen dute.
 <p>APLIKAZIOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrez ikasitako edukiak edo ezarritako jarraibideak (modu kontestualizatuan edo ez kontestualizatuan) errepikatzea bultzatzen dute. Hauen artean konplexutasun maila desberdineko jarduerak ditugu: <ol style="list-style-type: none"> a) Konplexutasun maila baxukoak. Ikasitakoa modu ez kontestualizatuan erabiltzea bultzatzen dutenak, hau da, ariketa mailako jarduerak, (emandako kontsignen ulemena, asmen aplikazioa, prozedura sinpleen gauzatzea, etab. frogatzeko erabiltzen direnak). b) Konplexutasun maila altukoak. Ikasitakoa modu kontestualizatuan erabiltzea bultzatzen dutenak. Hauen artean ikasitakoaren identifikazioa edo eta errepresentazioa gidatutako eta antolatutako behaketatik abiatzen da.
 <p>SINTESIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erkapitulazio jarduerak lirateke, helburu baten edo gehiagoren lorpena baloratzeko baliagarriak, beraz. Konplexutasun handieneko jarduerak dira, maila desberdineko trebetasunak osotasun batean erabiltzea bultzatzen baitute (ulemema, adierazpena, etab.).



2.3.5. BATXILERGOA

Batxilergoko ikasgaien programazio didaktikoetan (programazio laburtuak) irakasleek ikasgai bakoitzean aurreikusitako helburuak lortzeko garatuko dituzten estrategiak, metodologia, kompetentziak, ebaluazio irizpideak agertzen dira. Nolanahi ere, prozedura metadiziplinarrei dagokionez (ikasteko teknikak, aurkezpenak...), ikasgai guztietan ildo berari jarraituko zaio

Estrategia eta metodologia horiek zehazteko unean, kontuan izan behar dira ikasgaiaren helburuak, ikasleek batxilergoa amaitutakoan egin behar izango dituzten azterketak (USE) edo bestelako ikasketak, ikasle horiek derrigorrezko hezkuntzan Ikastolan bertan landu duten norabide metodologikoa (Ikastolen materiala eta euskal curriculum) eta kompetentzia orokorrak lortzea.

Kontuan izan behar da, baita ere, irakasteko eta ikasteko prozesuaren xedea kompetentziak lortzea izan behar dela, planteatzen diren egoerak edo arazoak eraginkortasunez konpontzeko kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak modu bateratuan mobilizatuz. Lana proiektuen bidez, ERRONKAK, eginez gero, erraztu egiten da gaitasun guztiak ikasleei helarazteko bidea eta baita ikasgaien arteko prozesuen diziplinartekotasuna ere. Era horretako materialak eta baliabideak eskura diren heinean, Ikastolak norabide horretan aurrera pausoak emango ditu. Ikastolen elkarrekin eginiko erronkak eta bertan diseinatutakoak erabiliko dira helburu honetarako material gisa.

Batxilergoko hezkuntza-jarduerak beren kabuz ikastea, taldean lan egitea eta ikerketa-metodo egokiak aplikatzea erraztuko die ikasleei. Horrez gain, ikasgai bat baino gehiago inplikatzeko dituzten ikerketa-lanak, lan monografikoak, diziplina artekoak, Erronkak, eta antzeko lanak burutzea erraztuko dute irakasleek, baita irakurketarako interesa eta ohitura eta jendaurrean egoki adierazteko gaitasuna pizten duten jarduerak ere.

Irakasleen taldeko lanak beren taldeko ikasle bakoitzari arreta ematen dien irakasle-taldeko kide guztien koordinazioa bermatu behar du.



3. HELBURUAK

Irakaskuntzan maila desberdinetako helburuak ezarri ohi dira. San Benito Ikastolak 3 mailatako helburuak zehazten ditu: etapa bakoitzaren amaieran ikasleek lortu beharreko helburu orokorrak; arlo bakoitzean, etapa bakoitzaren amaieran lortu beharreko helburu orokorrak; eta unitate didaktikoetako helburu didaktikoak.

Maila desberdinetako helburuak zehaztuz, Ikastolako hezkuntza jardunaren erreferentzia nagusiak ezartzen dira: irakaskuntza prozesuaren azken xedeak markatzen dira, eta jomuga horiek lortzeko bitarteko helburuak zehazten dira. Horrez gain, ebaluaziorako erreferente nagusiak ere helburu horiek dira Ikastolan.

3.1 ETAPETAKO HELBURU OROKORRAK

3.1.1 HAUR HEZKUNTZAREN HELBURU OROKORRAK

- Bere gorputza ezagutzeko, gorputzak ematen dituen aukerak zein diren eta desberdintasunak errespetatzen ikasi.
- Familia-, natura- eta gizarte-inguruneari behatzeko, aztertzeko, eta ezagutzeko interesa izateko, inguruko gizarte-jardueretan eta Euskal herriko kultura-jardueretan modu aktiboan eta apurka-apurka parte hartu.
- Ohiko jardueretan, pixkanaka, autonomia handiagoa hartzeko, bere buruarekiko konfiantza eta ekimena garatu.
- Bere gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzeko, bere buruaren irudi positiboa eta benetakoa eratu.
- Ingurukoekin harremana izateko eta bizikidetzarako eta gizarte harremanetarako oinarrizko arauak barneratzeko, gatazkak modu baketsuan ebatzen trebatu.
- Euskarari zein beste zenbait hizkuntzatan eta adierazpidetan komunikatzeko gaitasunak garatu.
- Trebetasun logiko-matematikoak eta irakurketa-idazketa ikasten hasteko, eta mugimendua, keinuak eta erritmoa lantzen hasteko, inguruan duen mundua ulertu eta interpretatu.



3.1.2 DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN HELBURU OROKORRAK

Pertsonak bizitza osorako eskuratuko duten hezkuntzaren etapa komuna eta derrigorrezkoa da Oinarrizko Hezkuntza, eta hauek dira haren xedeak, giza nortasunaren garapen osoa lortzeko:

- Ikasleak prestatzea pertsona helduen bizitzari ekiteko; bizitza oso bat izateko, gizabanako diren aldetik; gizarteko herritar aktibo izateko; eta izadiaren zaintzarekiko eta garapen iraunkorrekiko konpromisoa duten pertsonak izateko.
- Ikasleek euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko elementuak eskura ditzaten lortzea, eta maila handiagoko ikasketak egiteko nahiz lanean hasteko prestatzea, berme osoz.
- Ikasleekin sentsibilizazio-lana egitea eta haiek gaitzea bizitzan zehar etengabe ikasteko gai izan daitezen.

Konpetentzien arabera formulatutako helburuei dagokionez:

1.- Norbera izaten ikasi:

1.1.- Arduraz bizitzen ikastea:

a) Giza gorputzaren eta sexualitatearen funtzionamenduaren alderdi guztiak ezagutzea, ulertzea eta onartzea, eta norberaren eta gainerako pertsonen gorputzarekin lotutako ekintza eta erabaki pertsonalek norberaren eta giza taldeen osasunean dituzten ondorioez jabetzea. Gorputza zaintzeak eta osasuntsu mantentzeak, ariketa fisikoa egiteak eta elikadura orekatu bat eramateak bizitza pertsonalari eta sozialari dakartzkion onurak garatzea, finkatzea eta balioestea.

b) Ingurune naturala balioestea eta hura arduraz gozatzea. Izadiaren funtzionamenduaren oinarrizko mekanismoak aztertzea, giza jarduerak izadian duten eragina ulertzea, eta hura babesten, zaintzen eta hobetzen laguntzea, gizakien eta gizakien hurbileko animalien bizi-kalitatearen nolakotasuna baldintzatzen duen elementua den aldetik.

c) Kosmoseko eta lurreko partaidetzat identifikatzea eta izaki bizidun eta giza espeziearen kideztat hartzea nork bere burua. Horren xedea da norberaren izaera eta gizaki guztien izaera komuna ulertzea eta ekosistema osasungarri bati eusteko ardura hartzea.



1.2.- Ikaslearen giza alderdiak garatzen ikastea:

a) Bizi-ibilbidea gainerako pertsonekin batera eraikitzen duen subjektu autonomotzat ikustea norberaren burua, eta pertsonen ekintzak zer irizpide eta baliori jarraituz egiten dituzten jakitea. Kritikoa eta arduratsua izatea norberaren buruarekin eta gainerako pertsonekin, norberaren garapen osoa, gizartearen garapena eta izadiarekiko oreka lortzeko.

b) Auto-estimua eta gaitasun emozionalak lantzea eta horiek adieraztea nortasunaren esparru guztietan eta gainerako pertsonetik harremanetan; betiere, indarkeria eta aurreiritziak alde batera utzita.

c) Ikasleak modu egokian ikustea bere burua eta bere ezaugarriak eta aukerak, jarduerak autonomiaz eta orekaz egitea, eta balioa ematea helburuak lortzeko esfortzuari eta zailtasunak gainditzen joateari.

2.- Ikasten eta pentsatzen ikastea:

a) Modu koherentean eta kritikoa pentsatzen ikastea, eta ohiturak hartzea diziplina, esfortzua, erantzukizuna eta lan eta ikasketa indibidualerako eta taldekakorako teknikak lantzeko, hala, ikasketarekin lotutako eginkizunak eraginkortasunez egiteko eta norberaren garapenerako bitartekoak eskuratzeko. Horrek guztiak bultzatu egin behar du nork bere buruan konfiantza izatea eta ikaslearen sen kritikoa, ekimena, jakin-mina, interesa eta sormena.

b) Problema zientifikoak eta matematikoak identifikatzea, planteatzea eta ebaztea, kalkulu eragiketez, geometriari buruzko jakintzaz eta zenbatespenez baliatuta, eta azken horiek eguneroko bizitzan aplikatzeko gai izatea. Problema sormenez eta autonomiaz ebazteko, eskura dituen jakintzak eta baliabide materialak erabili behar ditu ikasleak; esaterako, beste pertsona batzuen lankidetzaren edo laguntza.

c) Zientziaren eta teknologiaren garapena, aplikazioak eta haiek ingurune fisikoan eta sozialean zer eragin duten jakitea eta balioestea. Zenbait diziplinatan egituratutako jakintza integratuz hartu behar dute ikasleek jakintza zientifikoa, eta metodo zientifikoak aplikatu eta baliabide teknologikoak erabili behar dituzte, jakintzaren eta esperientziaren eremuetako problema identifikatzeko eta ebazteko.



3.- Komunikatzen ikastea:

a) Zuzen, egoki, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta adieraztea euskarazko eta gaztelaniazko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeke, errealitatea interpretatzeko eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Literatura irakurtzeari, lantzeari eta aztertzeari ekitea. Hizkuntzetarako Europako Marko Komuneke B2 maila izango da esparru horretako erreferentzia.

b) Zuzen, egoki eta oinarrizko autonomiaz ulertzea eta adieraztea atzerri-hizkuntza bateko edo gehiagoko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeke, eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Hizkuntzetarako Europako Marko Komuneke B1 maila izango da esparru horretako erreferentzia.

c) Ikaslearen bizi-inguruneke errealitate soziolinguistikoa ikuspegi kritikoz interpretatzea, eta hizkuntzak sortzeke eta garatzeke eta hizkuntzen arteke harremanak finkatzeke faktoreak zein diren jakitea. Hizkuntzen aniztasuna errespetatzea eta aniztasun hori herrien eta gizabanakoek aberastasun eta eskubidetzat hartzea, interesa eta errespetuzko jarrerak izateke eskubide horren erabilerarekike eta hizkuntza-normalizazioko prozesuekike.

d) Informazioko teknologiak eta komunikabideak erabiltzea ikasteke eta jakintza berriak eskuratzeke prozesuan, betiere, hartutake eta sortutake mezuekike ikuspegi kritikoa izanda.

e) Arte-sorkuntza ulertzea, ezagutzea eta balioestea; arte-hizkuntzaren mezu zuzenak eta iradokitakoak identifikatzea eta ikuspegi kritikoz aztertzea; eta arte adierazpenez eta -obrez gozatzeke ahalmena, sentikortasun estetikea eta sormena garatzea, eta arte-hizkuntzak erabiltzea gauzak adierazteke eta komunikatzeko.

f) Hitzezke hizkuntza eta arte-, matematika- eta zientzia-hizkuntzak interpretatzea eta modu aktiboan eta kritikokan erabiltzea, komunikazio-ekintza zehatzak egiteke, azalpenak eta arrazoiak emateke, eta norberaren, gizartearen eta izadiaren errealitatea egoki irudikatzeke.

4.- Elkarrekin bizitzen ikastea:

a) Talde-jarduerak planifikatzen eta egiten laguntzea, eta, berariaz, bizikidetza-arauak eta demokratikokike ezartzen diren gainerake arauak ezagutzea eta betetzea, norberaren helburuak eta interesak taldeke gainerake kideenekin uztartuz, norberarenak ez diren ikuspegiak



errespetatuz, elkarrizketa landuz eta norberari dagozkion ardurak hartuz. Hori guztia giza eskubideak errespetatuz egin behar dute ikasleek, herritar aktiboa izateko prestatuz.

b) Auziak prebenitzeko eta haiek modu baketsuan konpontzeko trebetasunak eskuratzea; esaterako, entzute aktiboa, enpatia, asertibitatea, emozioen erregulazioa eta kontrola, eta negoziazioa eta bitartekaritza. Horien xedea ikasleak lankide-giroko testuinguru batean bizitzea da, hala nola eskolan, familian, etxean eta ikasleak bizikide dituen gizarte-taldeetan.

c) Ikasleak arduraz onartzea bere betebeharrak eta zer eskubide dituen jakitea eta horiek erabiltzea, gainerako pertsonak errespetatuz. Ez onartzea jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritziagatik eta bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatik egiten diren diskriminazioak. Tolerantzia izatea eta lankidetzaren eta elkartasun-jarrerak izatea pertsonetikiko eta taldeetikiko.

d) Gizarteko arauak eta ohiturak betetzea pertsonekin harremanak izatean eta gizarte-jardueretan parte hartzean; besteak beste, bide-hezkuntzako arauak eta nor bere burua babesteko hezkuntzari dagozkionak. Errespetuzko jarrerak izatea, trafiko-istripuak eta bestelako istripuak prebenitzeko.

e) Sexuen arteko diferentziak eta pertsona guztien arteko eskubide-eta aukera-berdintasuna balioestea eta errespetatzea, eta, horrekin batera, gizonak nahiz emakumeak diskriminatzea eragin dezaketen estereotipoak baztertzea.

f) Euskal herritartzat izatea norberaren burua, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea euskal hizkuntza eta kulturari edota norberak berezko eta erreferentziazko dituen; hala, ikasleak, identitate anizkunei erreparatuta, nortasun propio bat eraiki behar du, modu inklusiboan. Horrek guztiak erreferentziazko marko komun bat eraikitze bide eman behar du, pertsonen arteko diferentziak errespetatu eta bizikidetzaren erraztuko duena.

g) Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarriko alderdiak eta arte- eta kultura-ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, eta xede horiek betetzea gainerako kultura eta gizarteetikiko. Kultura eta sozietateen funtzionamenduko mekanismoak eta balioak aztertzea, batik batik, herritarren eskubideei eta betebeharrari dagozkienak, haiek ikuspegi kritikoz aintzat hartzeko eta haiekiko iritzi eta irizpide pertsonalak izateko.



5.- Egiten eta ekiten ikastea:

a) Izaera ekintzailea garatzea, norberarenganako konfiantza- jarreraren, partaidetzaren, sen kritikoaren eta ekimen pertsonalaren bidez, eta konpromisoa hartzea plangintzak egitea eta erabakiak nahiz ardurak hartzea eskatzen duten proiektuekin.

b) Norberaren jarrerak identifikatzea eta ikasteko nahiz lan egiteko aukeren alderdi onak eta txarrak balioestea, norberaren proiektu akademikoa eta profesionala zehazteko, ikuspegi errealista batetik eta norberaren gaitasun eta balioekin bat etorrira.

3.1.3 BATXILERGOAREN HELBURU OROKORRAK

Batxilergoari dagokionez, modalitate guztietarako helburu orokorrak eta modalitate bakoitzeko helburuak bereizi behar dira.

Batxilergoaren helburu komunak, ikasleengan honako hauek egiteko gaitasunak garatzen lagunduko du:

a) Herritartasun demokratikoa egikaritzea, ikuspegi globaletik, eta kontzientzia zibiko arduratsua hartzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren balioek eta giza eskubideek inspiratua, gizarte bidezko eta ekitatezko baten eraikuntzan erantzukizun partekatua sustatuko duena.

b) Heldutasun pertsonala, afektibo-sexuala eta soziala finkatzea, begirunez, arduraz eta modu autonomoan jarduteko eta espiritu kritikoa garatzeko aukera izan dezaten. Gatazka pertsonalak, familiarrak eta sozialak eta indarkeria-egoera posibleak aurreikustea, hautematea eta modu baketsuan ebaztea.

c) Emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasun eraginkorra sustatzea, dauden desberdintasunak analizatzea eta kritikoki baloratzea, baita emakumeek historian izan duten zeregina aitortzea eta irakastea ere, eta benetako berdintasuna eta jaiotzan, sexuan, arraza- edo etnia-jatorrian, desgaitasunean, adinean, gaixotasunean, erlijioan edo sinesmenetan, sexu-orientazioan edo genero-identitatean nahiz beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialetan oinarritutako diskriminaziorik eza bultzatzea.

d) Irakurtzeko, ikasteko eta diziplina izateko ohiturak finkatzea, ikaskuntza eraginkortasunez aprobeztatzeko beharrezko baldintza gisa eta garapen pertsonalerako bitarteko gisa.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ondo jakitea, ahoz zein idatziz.

f) Atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan jarioarekin eta zuzentasunez hitz egitea.



g) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kaudimenez eta erantzukizunez erabiltzea.

h) Gaur egungo munduaren errealitateak, aurrekari historikoak eta bilakaeraren faktore nagusiak ezagutzea eta kritikoki baloratzea. Modu solidarioan parte hartzea beren gizarte-ingurunearen garapenean eta hobekuntzan.

i) Funtsezko ezagutza zientifikoak eta teknologikoak eskuratzea eta hautatutako modalitatearen berezko oinarrizko trebetasunak menderatzea.

j) Ikerketaren eta metodo zientifikoaren funtsezko elementuak eta prozedurak ulertzea. Zientziak eta teknologiak bizi-baldintzen aldaketan izandako ekarpena ezagutzea eta modu kritikoan baloratzea, eta ingurumenarekiko sentsibilitatea eta errespetua finkatzea.

k) Espiritu ekintzailea finkatzea, sormena, malgutasuna, ekimena, talde-lana, norberaren gaineko konfiantza eta zentzu kritikoa bezalako jarreraren bidez.

l) Sentsibilitate artistikoa eta literarioa eta irizpide estetikoa garatzea, prestakuntza eta aberaste kulturalaren iturri gisa.

m) Heziketa fisikoa eta kirola erabiltzea garapen pertsonal eta sozialaren alde egiteko. Jarduerafisikoak eta kirol-jarduerak egiteko ohiturak finkatzea, ongizate fisikoari eta mentalari mesede egiteko, eta garapen pertsonal eta sozialerako bitarteko gisa.

n) Mugikortasun seguru eta osasungarriaren esparruan errespetu- eta prebentzio-jarrerak finkatzea.

o) Klima-aldaketaren aurkako borrokan eta garapen iraunkorraren defentsan jarrera arduratsua eta konprometitua sustatzea.

p) Garapen Iraunkorrerako Helburuek ekartzen dituzten aldaketak sustatzea eta erronkei aurre egitea.

Zientzia eta teknologia batxilergoa

- Oinarrizko ezagutza zientifiko eta teknologikoak izateak, galderak modu argi eta zehatzean formulatuz, eta erantzun metodoa aplikatuz, arazoak konpondu eta premiak, norberarenak edo taldekoak, gogobetetzea ahalbidetzen duen beharrezko kultura zientifikoa lortzeko.
- Ikerketaren eta metodo zientifikoaren oinarrizko elementuak ulertzea, horiei loturiko prozedurak praktikan jarritz, eta errealitatearen



interpretazio eta esku-hartze onena egiteko tresna matematikoak erabiliz.

Humanitateak eta gizarte zientziak batxilergoa

- Sentsibiltate artistikoa eta literarioa garatzea, baita irizpide estetikoa ere, hausnarketa kritikoa eta erantzuteko tresnak erabiliz, kulturako adierazpena ulertu, horietan parte hartu eta gozatzeko.
- Hizkuntza klasikoak, literatura eta artelanak, eta prozesu eta gertaera historiko garrantzitsuak ulertu eta baloratzea.
- Gizartearen oinarriko arazo ekonomikoak identifikatu eta gizartean garrantzi berezia duten fenomenoek azterketan tresna matematikoak aplikatzea.

Batxilergo orokorra

- Prestakuntza orokorra eskaintzea, ikasle bakoitzak heldutasun intelektual eta pertsonal handiagoa izan dezan eta, era berean, jakintza eta trebetasun sorta zabala ulertzeko gaitasun handiagoa izan dezan.
- Pentsamendu kritikoa sustatzea, ikasleei bizitza aktiboan arrakastaz eta erantzukizunez sartzeko aukera emango dien heldutasun handiagoa lortzeko.



3.2. ARLOETAKO HELBURU OROKORRAK

3.2.1 HAUR HEZKUNTZA

1.Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera»

- 1) Ohartzea norbera pertsona berezia dela eta nork bere buruaren gaineko irudi orekatu eta positiboa osatzea, norberaren nortasuna eraikitzeko.
- 2) Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalme nak eta mugak deskubritzeko.
- 3) Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimen duak, jolasa, arakatze-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.
- 4) Ekimenak abiatzea eta norberaren ekintzak planifikatzea eta sekuentziatzea, egiteko errazak edo arazo-egoerak ebazteko eta nork bere buruaren gaineko konfiantza-sentimendua handitzeko; frustrazio txikiak onartzea, sortzen zaizkion zailtasunak gaintzeko jarrera adieraztea eta gainerako pertsonengandik behar den laguntza bilatzea.
- 5) Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea, norberaren jokabidea erregulatu eta norberaren eta gainerako pertsonen beharrietara egokitze, eta sumisio nahiz nagusitasuneko jarrerak baztertzea.
- 6) Ingurune fisiko eta soziala behatu eta aztertzea eta hura ezagutzeko interesa adieraztea, haren partaide izateko sena lantzeko eta ingurune horretan nolabaiteko segurtasunez eta autonomiaz jarduteko.
- 7) Ingurune fisikoa arakatzea eta esperimendatzea eta haren elementuetako batzuen ezaugarriak ezagutzeko, elementu horien gainean eragin eta haiek eraldatzeko gaitasuna lantzeko, eta interes eta errespetuzko jarrerak lantzea.
- 8) Elementu eta bildumek zer ezaugarri dituzten jakitea; multzokatzeko, sailkatzeko, ordenatzeko eta zenbatzeko erlazioak ezartzea, pentsamendu zientifikoa lantzeko.
- 9) Gailu teknologikoak erabiltzen hastea eta haien komunikazio-ahalmena balioestea, eta, arian-arian, haiek informazioa eskuratzeko, ikasteko eta plazera lortzeko erabiltzea.
- 10) Hurbilean zer gizarte talde dituen jakitea eta haiengana, haien



kultura-ekoizpenetara, balioe tara eta bizimoduetara jarrera irekiz gerturatzea, konfiantza, errespetu eta balioespeneko jarrerak lantzeko.

11) Arian-arian, gizartean jokatzeko oinarritzko jarraibideak barneratzea eta norberaren portaera jarraibide horietara moldatzea, gero eta modu egoki eta orekatuagoan.

2.Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena.

1) Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.

2) Hizkuntza askotarikoen komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta tresna horiez gozatzea, norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrianak, sentimenduak eta bizi penak adierazi eta azaltzeko.

3) Ahozko hizkuntza arian-arian erabiltzea eta balioestea norberaren portaera eta elkarbizitza erregulatzeko.

4) Gainerako haurren eta helduen mezuak ulertzea eguneroko bizitzako egoeretan, eta hartu-eman horietako arauak ikastea, komunikatu nahi dena interpretatzeko.

5) Hizkuntza ofizialetan eta inguruneko hizkuntza askotarikoetan komunikatzeko jarrera irekia izatea, beste errealitate eta kultura batzuk deskubritu eta errespetatzeko.

6) Atzerriko hizkuntza bat komunikazio-xedez erabiltzen hastea, ikasgelako egoera normaletan parte hartzeko.

7) Hainbat kultura-tradiziotako testu batzuk ulertzea, azaltzea eta moldatzea, haiekiko interesa izateko, haiek balioesteko eta haiekin gozatzeko.

8) Hizkuntza idatziaren gizarte-arauak ikasten hastea, idazketaren funtzionamendua ikertzeko eta komunikatu, informatu eta gozatzeko tresna moduan balioesteko.

9) Askotariko testuingurutan erabiltzea matematika-adierazpenak, objektuen ezaugarriak deskribatzeko eta inguruneko egoerak interpretatu eta ulertzeko.

10) Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, beste beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabiltzea, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.



3.2.2 LEHEN HEZKUNTZA:

LHko ARLOETAKO HELBURU OROKORRAK eranskinean jasotzen dira.

3.2.3 DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

DBH4ko programazio laburtuetako arlo bakoitzeko helburu orokorren atalean jasotzen dira arloko helburu orokorrak.

3.2.4 BATXILERGOA

Programazio laburtuetako arlo bakoitzeko helburu orokorren atalean jasotzen dira arloko helburu orokorrak (ikus PROZESUAK-1.Curriculum diseinatu,... prozesuan erregistroetan DBH-DBHO karpetan).

3.3 HELBURU DIDAKTIKOAK

Hezkuntzaren helburua ikaslearengan kompetentzia orokorrak garatzea da. Kompetentzia orokorrak bizitza akademikoan kompetentzia espezifikoaren lanketaren bitartez bideratzen dira. Eta kompetentzia espezifikoak gelan helburu didaktikoen bidez gauzatzen dira. Alor bakoitzean ikasleek eskuratu behar duten garapen-mailaren edo ikaskuntzen lorpen-mailaren konkretzia dira helburu didaktikoak. Irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren asmoak zehazten dituzte Ikastolaren Curriculum Proiektuan, ikasleek zer ikastea espero den kontuan hartuta. Alor eta unitate bakoitzean zehazten diren helburu didaktikoak lortzea izaten da eguneroko irakaskuntza-jardunaren xede behinena. San Benito Ikastolak, Euskal Curriculum garatzeko hartu duen konpromisoari jarraituz, Ikastoletako ikasmaterialetan garatzen diren helburu didaktikoak izango dira arloetako eta etapetako programazioaren erreferente nagusia.

Helburu didaktikoetan gaitasun bat eta era desberdinetako edukiak (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak edo jarrerazkoak) azaldu ohi dira, eta Ikastolaren nahia da elementu horiek zein bere aldetik ez agertzea, elkarrekin zerikusirik ez duten hezkuntza elementuak izan ez daitezen: ezinekoa da kontzeptu bat ikastea gaitasun kognitibo bati lotua ez badago; gauza bera prozedurazko eta jarrerazko edukiei dagokienez.

Helburu didaktikoetan garatzen diren gaitasunak kognitiboak, psikomotoreak edo komunikatiboak izan daitezke; Ikastolan formazio ahalegina egin da oinarrizkoenak diren gaitasunak era berean uler daitezen edo irakasleak alor eta proiektu bakoitzean garatzen diren gaitasunen gelako lanketan trebatu daitezen (Proiektu propioak, KIMU eta EKI proiektuak, Erronkak formazioa). Kontzeptuzko edukiak arlo bati berez dagozkion terminoak dira, ezagutza-arlo batekin lotutako gaiak ulertzeko eta adierazteko beharrezkoak direnak. Prozedurak ekintza bat burutzeko



jarraitu beharreko pauso arautuak dira. Arloaren arabera mota bateko edo besteko gaitasunak eta edukiak gehiago azalduko dira.

Helburu didaktikoak lorpen gisa ulertzen dituen egitura honek, aniztasunaren trataeraren ikuspegitik, gaitasun-maila desberdinak dituzten ikasleentzat egitura bateratua duen curriculumak eskaintzeko aukera ematen du.

Ebaluatzeko unean helburu didaktikoak izango dira irakasleen erreferentzia zuzena. Helburu didaktikoak unitate didaktikoen barnean txertatzen dira, eta ikastolako unitate didaktikoetan lantzen dena jasotzeko txantiloia bateratu bat dago derrigorrezko hezkuntzarako.

Lehenengo atalean esan dugu konpetentzien garapenean oinarritutako hezkuntza oso loturik dagoela egoerekin: ikasleek *zer* eta *nola* landu behar duten zehazteaz gain, *zertarako* ere izan behar da kontuan. Arlo bakoitzeko helburu orokorrak zehazteko unean ikuspegi horri jarraitu zaio. Hurrengo urteetako eginkizunetako bat ikuspegi hori pixkanaka unitate didaktiko konkretuetara hedatzea izango da, eta helburu didaktikoetan ere izan lezake eragina; baina horrek ez du esan nahi helburu didaktikoen konkrezio mailan nahitaezkoa izango denik *zertarako* formulatzea.

4. ANIZTASUNAREN TRATAERA

Aniztasunaren trataera oinarrizko hezkuntza-irizpidea da, horrela bermatzen baita haur guztien garapena arreta pertsonalizatua, haurraren heldze-prozesua, interesak, erritmoak eta ikasteko estiloa kontuan hartuta.

Aniztasunari erantzuteak haur bakoitzaren ezaugarriei, garapenari, ikasteko estiloari, hezkuntza-beharrei, interesei eta ezaugarri-estiloari egokitutako erantzuna eskaintzea dakar berekin. Haur bakoitzak gaitasun batzuk ditu, bere garapen-erritmoa du eta bere ezaugarriak modu pertsonalean eta dinamikoan eraikitzen ditu, bizitzen dituen esperientzien, bere jatorri sozial, ekonomiko eta kulturalaren eta, nagusiki, prozesu horretan ematen zaion laguntzaren arabera. Eta eskolak egon litezkeen abiaburuko aldeak orekatu behar ditu. Horretarako, ikasleek garapen bidezkoa, orokorra eta harmonikoa izan dezaten ahalbidetuko duten hezkuntza-esperientziak, esperientzia kulturalak, teknologikoak eta antzekoak eskaini behar ditu.

Aniztasunaren trataerarako neurriek helburu nagusiak ondorengoak dira: ikasleen berariazko hezkuntza-premiei erantzutea, eta ikasleek curriculumean jasotako oinarrizko gaitasunen gutxieneko mailak eskuratzea. Neurri horiek lagundu behar dute ikasleek ingurune normalizatu eta inklusibo batean ikas dezaten, eta adierazitako helburuak eta dagozkien titulazioak lor ditzaten.



Aniztasunaren trataerarako neurriek erantzun egin behar diete ikasleen hezkuntza-premiei, haien ikasteko interesa, motibazioa eta ahalmena aintzat hartuta, ingurune normalizatu eta inklusibo batean ikas dezaten.

Arloren batean premia berezia duten kasuak ahalik azkarrena detektatzea oso garrantzitsua da, esku-hartzea ahal den eraginkorra izan dadin. Esku hartzea bera ere ahalik azkarrena abiatzen saiatuko da Ikastola, eta eskolako esparruaren barnean hartzen diren neurriez gain, familien inplikazioa eta elkarlana ere bereziki bilatuko ditu Ikastolak.

Ikastolak premia bereziak detektatzeko jardunbide bat du zehaztua, eta irakasleren batek sumatzen duenean ikasleren batek premia bereziak izan ditzakeela, ahal den azkarrena orientazio taldeagana joko du, ezarrita dauden urratsak martxan jartzen hasteko.

Ikastetxearen barnean, adinaren eta kasuaren arabera, mota desberdineko neurriak abiaraz daitezke: ikasleari talde arruntean arreta eta laguntza handiagoa ematea; laguntzako irakaslea talde arruntera sartzea, ikasle bati edo gehiagori laguntzeko; ikaslea talde arruntetik ateratzea, arlo edo gai bat irakasle batekin indartzeko; taldeak banatzea edo taldeak aldatzea hezkuntza-premia jakin batzuei erantzuteko.

Curriculumeko helburuak lortzea errazteko, berariazko prozedurak ezarriko dira, baldin eta beharrezkoa ikusten bada jarduera-plan berezi bat egitea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen premiei erantzuteko. Plan horrek curriculum-egokitzapenak egin ditzake, curriculumaren edukietatik eta ebaluazio-irizpideetatik aldenduz. Ikaslearekiko jarduera-planean adierazitako curriculum-egokitzapenen helburua hau da: oinarritzko gaitasunak ahalik eta gehien garatzea ikasle horiengan. Curriculum-egokitzapen horietan finkatutako ebaluazio-irizpideak izango dira ikasleen ebaluazioa eta promozioa erabakitzeko erreferentziak.

Bestalde, azken urteotan etorkinen kopurua handitu egin da Euskal Herrian eta ondorengo urteetan norabide berdineko joera sendotu egingo dela aurreikusten da. Ikastolak zeregin nabarmena, oinarritzkoa, du etorkinen integrazio prozesuan eta alde honetatik bere jatorrizko hizkuntza eta kulturarenganako maitasuna indartzeko gunea izan behar du, harrera egiten dion gizartearen hizkuntza eta kultura preziatzeko eta bereganatzeko lehen elkargunea izan behar duen bezalaxe. Horregatik, Ikastolara etortzen diren etorkinekin harrera protokolo bat ezarri du ikastolak: ikaslearen jatorriaren arabera erreferentzi multikulturalak, premia linguistikoak eta curriculumari dagozkionak ziurtatzeko estrategiak eta esku hartze plan indibidualak Curriculumari gaineratzea.

Aniztasunaren trataerari dagokionez printzipio orokor hauek jarraituko dira Ikastolan etapa guztietan, baina etaparen arabera berezitasunak izango dira.



4.1 HAUR HEZKUNTZA

Ikasleen aniztasuna kontuan hartzeak izugarrizko garrantzia du etapa honetan: haur bakoitzak garapen erritmo propioa daukanez, bakoitzaren bilakaera indartzea eta errespetatzea izango da hezkuntzaren helburua.

Ikasle guztien aniztasunaren trataera kontuan izateko malguak izango dira etapako helburu orokorrak betetzeko neurriak eta horrela, etorkizunean oinarritzko konpetentziak garatzen lagunduko zaie. Ikastolak errefortzu-mekanismo egokiak jarriko ditu abian, antolakuntzakoak nahiz curriculumeakoak, ikaskuntzan zailtasunak aurkitzen direnean. Hona hemen neurri horietako batzuk: laguntza ematea talde arruntean, taldekatze malguak egitea, curriculum-egokitzapenak eta berariazko errefortzuak eremuren batean.

Irakasle-taldeak haurren alde pertsonalak kontuan hartu eta errespetatu egin behar ditu, eta zenbait programazio eta proposamen ireki egingo ditu. Programazio eta proposamen horiek, gauzatzen direnean, irakaskuntza-prozesua ikasle bakoitzaren behar pertsonaletara egokitzeko aukera ematen dute. Ondorioz, jarduera estandarizaturik ez da egin behar besterik gabe, ezta taldean aldi berean gauzatzekoak ere, eta ezta guztientzat betekizun berak eskatzen dituzten emaitza bakarrak dituztenak ere. Horien ordez, denen interesei erantzungo dietenak eta, talde txikietan, ikasgelaren barruan hainbat mailatan lan egiteko aukera emango dutenak egin behar dira.

Haurren parte-hartze aktiboaren alde egiten duen Haur Eskolan askotariko kultura adierazpenak azaleratzen dira. Hainbat jatorri geografiko eta kulturaletako haurrak izateak integrazio-prozesua erraztuko du, eta errespetua eta talde bakoitzak dakartzan balio positiboaren trukea izango da nagusi.

Berariazko arreta merezi dute hezkuntza-premia bereziak dituzten hurrek. Funtsezkoa da behar horiei garaiz antzematea eta arreta goiztiarra ematea, gizarte-zerbitzuetako, hezkuntzako eta osasuneko profesionalekin koordinatuta.



4.2 LEHEN HEZKUNTZA

Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako lehenengo urteak klabeak izan ohi dira esku-hartze bereziak behar dituzten haurrak detektatzeko unean. Etapa berria hastean, aurretik ikasle horrekin egin den lanketa eta bere egoera berriro baloratzen dira, eta ateratzen diren ondorioen arabera, antolakuntzako nahiz curriculumaren arloko neurriak har daitezke, ikasleen heziketaren indargarri: laguntza ematea talde arruntan, beharren arabera gelaz kanpoko laguntza, ikasle-taldean taldekatze malguak egitea eta curriculumean egokitzapenak egitea. Etapa honetako zikloren baten amaieran errepikapena ere erabili daiteke ikasleen aniztasunari erantzuteko.

Esku-hartze hezitzaileak aintzat hartu behar du ikasleen ezaugarrien aniztasunaren printzipioa, hori baita ikasle guztien garapena bideratzeko eta ikasle bakoitzaren premiei egokitutako arreta emateko bidea. Etapa honetan, tutorea izan ohi da haurraren erreferentzia nagusia, eta berarekin izaten ditu klase gehienak. Aniztasunari erantzuna emateko unean, tutoreak eta laguntza gelako irakasleek elkarren arteko koordinazioa izan ohi dute, eta elkarlan horretatik abiatuta zehazten dira ikasle bakoitzaren helburuak eta erritmoa.

4.3 DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Derrigorrezko hezkuntzaren azken etapara, ezaugarri eta interes oso desberdineko ikasleak iristen dira. Aniztasun horri erantzuteko, unitate didaktikoetan helburu didaktikoak mailakatzen dira: helburu didaktiko estandarrak eta oinarrizko helburu didaktikoak bereizten dira. Ikasketa materialetan, berriz, jarduerak zailtasun maila zehaztua izaten dute, ikasleekin garatzeko unean kontuan izango da jarduera horien zailtasun maila, ikasleen ezaugarrietara egokitu ahal izateko: ez da nahitaezkoa ikasle guztiek jarduera guztiak berdin egitea.

Bestalde, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumak aukerakotasunerako eta indartze-jardueren ezarpenerako eremu bat eskaintzen die ikasleei, eta eremu hori ezartzeak helburu hau du: ikasleen interesei eta premiei erantzutea, ikasketak indartzea ikasleak premia handiena duen gaitan, etorkizuneko ikasketetarako prestatzen hastea norbere interesen eta ezaugarrien arabera.

Horrez gain, izaten dira premia bereziak dituzten ikasleak ere. Ikasle horiekin sarreran aipatu den jardunbidea jarraituko da, bakoitzaren ezaugarrien arabera.



4.4 BATXILERGOA

Batxilergoan aniztasunari erantzuteko neurriak ikasleen hezkuntza-premia zehatzei erantzuteko eta curriculumean adierazitako kompetentzien gutxieneko maila lortzeko daude bideratuta; horiek edonola ere helburuak lortu eta dagokien titulazioa lortzea ahalbidetuko dien bidea izango dira.

Batxilergoan, ikasle bakoitzaren ezaugarrien eta etorkizuneko asmoen arabera, arlo bat lantzeko metodologia, prozedurak edo landutako edukiak desberdinak izan daitezke, edo taldeek antolaketa malgua izan dezakete, beti ere arlo horretako azkeneko helburuak lortzea bermatzeko xedearekin.

Bigarren mailara pasatzen diren baina gainditu gabeko ikasgaiak dituzten ikasleentzako banakako jarraipena egingo die (irakasleak gidatutako ikasketa-plana, errekupeazio-azterketak edo bestelako lanak...).



5. EBALUAZIOA

Ebaluazioa heziketa prozesuko oinarrizko baliabideetako bat da. Ebaluazio hezigarrian, ikasketa-prozesuko bi protagonista nagusik hartzen dute parte, irakasten duenak eta ikasten duenak. Irakaste eta ikaste prozesuan, irakasleak etengabe jasotzen eta ematen du ikasleak egindako ibilbideari buruzko informazioa: ikasle bakoitzak bere ikasketetan segitzen duen prozesua zein den, aurrez egindako aurreikuspenei nola erantzuten dien, prozesuko zein alderdik erakusten duen zailtasun handiena..., horiez guztiez xehetasun zehatzak ateratzen saiatuko da. Eta ikasleak, aldiz, adinaren arabera berezitasunekin, ebaluazioaren bidez, aurrez ezagutzen dituen helburuen lorpena bilatuko du, eta zer egiten duen ongi eta zer hobetu behar duen jakinik, alderdi ilun eta zailak argitzen saiatuko da bereziki. Ikuspuntu horretatik begiratuta, ebaluazioa ikasketa-prozesuan integratutako beste elementu bat gehiago da.

Ebaluazio hezigarriak baditu zenbait alderdi oso kontuan izan beharrekoak. Alde batetik, ikasleak amaieran erdietsi dituen lorpenak neurtu eta jakinarazi behar ditu. Baina horrez gain, ikaslearen abiapuntua nolakoa den jakin behar da unitatearen hasieran; irakaskuntzaren prozesuko elementu guztiak eta prozesua bera ebaluatu behar dira, desbideratzeak saihestearren; ikasleari lortu beharrekoa zer den garbi izaten lagundu behar dio, eta prozesu horretan gidatu behar du, bere ahuluneak eta lorpenak nabarmenduz; ikasleen aniztasuna kontuan izan behar du, maila desberdineko helburuak proposatuz, baina oinarrizko gutxieneko lorpenak argi markatuz.

Ebaluazio prozesu horretan 3 aldi bereizi ohi dira:

- **Hasierako ebaluazioa:** Unitatearen hasieran egiten da. Unitateak proposatzen dituen ikaskuntza berriei aurre egiteko, ikasleen oinarrizko aurre ezagutzak zein diren aztertzen da une honetan. Ikuspegi formatzailea du eta ez da derrigorrezkoa ikaslea kalifikatzea. Horko emaitzen arabera, unitate didaktikoan aldaketak egin daitezke, alderdi bat edo gehiago arinago edo sakonago landuz.
- **Prozesuaren ebaluazioa:** Ikasketa prozesua erregulatzeko eta ikasleak norbere burua erregulatzeko balio du. Etapen arteko desberdintasunekin, jarduerak burutzerakoan ekintzak planifikatzeko ikasleak duen gaitasuna, edo ebaluazio irizpideen jabetza bultzatu behar ditu. Une horretan, ikasleei lagundu egin behar zaie, prozesuan zehar aurkitzen dituzten zailtasunak eta trabak gainditzeko, egiten dituzten hutsegiteez konturatzen, eta horiek zuzentzen ikasten. Horrela, prozesuan zehar beren jarduna antolatzen eta auto-erregulatzeko laguntzea da helburua, ikasketan aurrera egin dezaten.



- **Amaierako ebaluazioa:** Ikasketa-prozesuaren amaieran egiten da eta izaera globalizatzailea izaten du. Helburu didaktikoak zenbateraino lortu diren neurtzen du.

Irakasle taldeak ebaluazio batukaria egingo du, eta alderdi hauek guztiak hartuko ditu kontuan.

Batzuetan, ikasle batzuek helburu didaktikoren batzuk edo arloren bat ez dute gaindituko ohiko ebaluazioan, eta errekupeazioaren prozesuari ekin beharko zaio. Errekupeazio prozesu hori desberdina izango da ikaslearen adinaren, arloaren eta helburu didaktikoaren arabera. Helburuetako batzuk jardunean errekupeatzeko modukoak izango dira, bereziki prozedurekin lotuak direnean eta hurrengo unitate didaktikoetan agertzen direnean. Beste batzuetan, ordea, hurrengo unitate didaktikoetako helburuak lortu ahal izateko nahitaezkoak diren prozedurak edo kontzeptuak azalduko dira, edo hurrengo unitate didaktikoetan lantzen ez direnak, eta ondorioz, helburuen errekupeazioa ziurtatzeko jardura edo frogaren moduan berreskuratuko dira. Etapa edo mintegi bakoitzak erabakiko du dagokion errekupeazio prozesua nola gauzatu den, eta ikasleari gidaritza eta laguntza eskainiko dio.

Bestalde, ikastolak konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza garatu nahi duenez, ebaluaziorako unerako ere nahitaezko erreferentzia izango ditu oinarritzko konpetentziak. Euskal curriculumean azaltzen diren 5 konpetentzia orokorrak (komunikatzen ikasi...) ez dira zuzenean ebaluagarriak, abstraktuak eta konplexuak direlako; horien ordez, konpetentzia espezifikoak dira ebaluazio-prozesua bideratzeko lehen elementua.

Baina konpetentzia espezifikoek ematen dituztenak baino pista zehatzagoak behar ditu irakasleak unitate didaktiko bakoitzaren irakaste-eta ikaste prozesuan nahiz haren amaieran ikaslearen lorpen-mailak ebaluatzeko: konpetentzia espezifikoaren konkretzia diren helburu didaktikoak. Hortaz, Helburu didaktikoak izango dira ebaluaziorako erreferentzia zuzena gure ebaluazioan.

Ikastolako irakaskuntza jarduna, ikasleek helburu didaktiko horiek lor ditzaten martxan jartzen den prozesua izango da, eta horretarako planifikatzen dira zereginak eta aurreikusten ditugu baliabideak. Ebaluazioa, aldiz, aurretiaz definitu ditugun helburu horiek ikasleek zer neurritan lortu dituzten egiaztatzen duen prozesua izango da; betiere, ebaluazioak diagnosia egiteko duen balioa ahaztu gabe.

Hala ere, az dugu ahaztu behar, planifikatu eta finkatu ditugun helburu didaktikoak, estandarrak nahiz oinarritzkoak, ikasleek lortu beharreko ikaskuntzen aurreikuspenak direla, eta eguneroko heziketa-jardunak sor ditzakeela aurrez ikusi ez diren beste ikaskuntza baliotsu batzuk ere. Aldez aurretik helburutzat hartu ez zirelako ezin dira, besterik gabe, horiek kontuak hartu gabe bazterrean utzi. Hortaz, irakasleak



ez ditu patroï itxi gisa hartu behar unitate didaktiko bakoitzerako formulatu ditugun helburuak; atea zabalik dago, eta eguneroko heziketa-praktikatik erator daitezkeen beharrak eta aberastasunak kontuan izanik, irakasleak helburu horiek eraldatu edo osa ditzake.

Curriculumeko zehaztapen-maila guztien arteko koherentziari eusteko, helburu didaktiko bakoitzak, estandarrak nahiz oinarritzkoak, arloko konstanteekin erlazio zuzena izango dute.

Horrez gain, kompetentzietan oinarritutako irakaskuntzari lotuta, ebaluazioaren alorrean bada oso kontuan izan beharreko beste alderdi bat ere. Esan dugu, ikasle batek kompetentziak garatuta dituela esan dezakegula, ikasle hori egoera konplexu bati aurre egiteko era desberdinetako baliabideak modu integratuan mobilizatzeko gai denean. Tradizionalki, ebaluatzeko unean bereziki baliabideen gainean lan egin da (eduki kontzeptualak, prozedurazkoak...), baina Ikastolaren nahia da, aurrera begira, baliabideak integratzeko **egoerek** Ikastolako irakaskuntzan geroz eta leku handiagoa izatea (etapen arteko berezitasunak kontuan izanik), eta ondorioz, era horretako irakaskuntza eta material pedagogikoak garatuz doazen heinean, ebaluatzeko unean ere garrantzia hartuz joan beharko lukete.

Ikastolan egiten diren ebaluazio prozesuek ezaugarri eta irizpide hauei jarraituko diete. Nolanahi ere, ikaslearen etapak eta adinak eragin handia du ebaluazioan: adin txikikoentzat alde zuzenetik ezarritako helburuak kontuan hartuta ikaslearen garapena behatzeak izango du garrantzia; batxilergoko ikasleentako asko, ordea, eduki zerrenda jakin bat barneratua izatea eskatzen duen froga baten atarian egongo dira, eta ikasleak eskakizun hori betetzen duela neurtu beharko du irakasleak. Adin eta etapa desberdintasun horrek ebaluazio prozesuaren alderdi guztietan du eragina. Etapa eta arlo bakoitzeko programazioetan jasotzen dira ebaluazioak kasu bakoitzean izango dituen ezaugarriak eta zehaztapenak (ebaluazio irizpideak, errekuperazioa...).



5.1 EBALUAZIO MOTAK

Barneko ebaluazioa: Ikastolan, barruko, bertoko, helburuak, prozedurak, emaitzak neurtzeko egiten diren saioak dira hobetzeko asmoz.

Ebaluazio bertikala - Heteroebaluazioa

Ebaluazioaren erdigunean ikasleak bere buruaren gainean duen autokontzientzia eta autorregulaziorako gaitasuna garatzea badago ere, tutorearen edo irakaslearen gidatze lanak ezinbesteko izango ditu prozesuan. Irakasleek baliozkotze funtzioa izango dute prozesuan zehar, protagonismoa. Heteroebaluazioan erabili ohi diren jarduera eta baliabide nagusiak irakasleek prestatutako probak izaten dira: azterketak, ekoizpenak entregatzea, (testuak, grabazioak...) Irakasleek aurretik prestatutako eta ikasleekin partekatutako kontrol-zerrendak eta errubrikak erabili izan dira maiz. Ikasi/irakatsi nahi diren eduki eta konpetentzien arabera, ariketa praktikoak, sormena-ekoizpenak egiteko kontsignak, etab. erabiliko dira horrelako ebaluazioa egiteko.

Ebaluazio horizontala - Koebaluazioa

Paraleloen arteko ebaluazioaren bidez ebaluazio bertikalean behatu gabe geratzen diren hainbat kontu ebaluatzen dira.. Adibidez, ikasleen arteko ebaluazio saioak egitea.

Ebaluazioa ekintza sozial modura ulertzen badugu, bestearen prozesuaren kontzientzia eta hausnarketa prozesuak partekatuak izango dira. Norberaren jardunak bestearenean duen eragina erregulatzea da helburua, eta alderantziz.

Proiektuetan edo lantegietan egindako lana proiektuak elkarlanean ibili direnen artean elkarri zer hobetu iradokiz egiten da.

Koebaluazioa bideratzen irakasleek, hemen ere errubrikak, galdetegiak presta ditzakete, iruzkinak, iradokizunak edo analisi kualitatiboak bideratzeko.

Talde ebaluazioa, taldekatze txikietan ematen da eta ebaluatuko direnen artean adostu daitezke ebaluazio tresnak.

Ikaskideen iradokizunak eta zuzenketak balio berezia dute. Irakasleek heteroebaluazioan "dena zuzentzeko" joera izaten dute, ikaskideek, ordea, inportanteena ikusten dute, eta ez dira txikikeriekin konturatzen. Bestalde, maiz adhesio emozional handiagoa sortu ohi dute kideek, eta efektu handiagoa lortzen da kide askok esaten edo iradokitzen dutenarekin,



"goitik", "(bertikalki)", ustezko jakintsu bakar batek (irakasleak) esaten duenarekin baino.

Autoebaluazioa

Norberak bere burua ebaluatzeko diseinatzen dira hainbat ebaluazio tresna.

Hezkuntza metodologia askotan, ikasleak aukera izango du bere buruarekiko duen autokontzientziarako eta autorregulaziorako gaitasuna garatzeko. Prozesuaren ardatza pertsonalki zein profesionalki garatzea izango da, eta etengabeko garapenera bideratzea. Era berean, prozesuaren azken xedea ikasleak metakogniziora edo metahausnarketara heltzea izango da.

Autoebaluazioa bideratzeko, irakasleek auto-zuzentzeko moduko azterketak edo testak diseinatzen dituzte, hau da galdetegi batzuk erantzun itxiekin; erantzunak galdetegia bete ondoren, bakarka, auto-zuzentzeko. Galdera itxiekin ikasleek autozuzenketa praktikatzen dute.

Galdera irekiekin ere bideratu daiteke. Irakasleak galdetegi edo gidoi bat prestatzen du eta ikasleek autoebaluazio txosten bat idatz dezakete.

Atzeraelikadura, berrelikadura edo feedbacka

Ebaluazio prozesua komunikazio prozesu bat bezala ulertuz gero, bi norabideetako komunikazio ahal bezain osoa lortzen saiatzen gara ebaluatzaileak eta ebaluatuak. Ebaluatzaileak transmititu nahi izan duen informazioa, ekarpenak, zuzenketak, iradokizunak-eta noraino ulertu diren jakin behar du, eta horretarako atzeraelikadura edo feedbacka mekanismoak antolatu beharko.



6. TUTORETZA ETA ORIENTAZIOA

Ikastolaren hezkuntza proiektuak ikaslea bere osotasunean hartzen du kontuan, eta tutoretzaren arloak garrantzi handia du ikasleak konpetentzia orokorretako batzuk eskuratzeko unean. Tutoretzaren bidez hainbat helbururen lorpena bultzatzen da: ikasleak bere burua ezagutzea eta onartzea, gizarteratze prozesua hobetzea, erabakitzen ikastea eta pertsonalitate, ikaskuntza, harreman arazoei aurre egitea. Beraz, bizitzako ikaskuntzan etengabe laguntzen digun prozesua da tutoretza.

Arlo honen bidez ikasleei beren garapen pertsonal orekatuan lagundu nahi zaie (bai norbanako gisa, bai gizarteko kide bezala), eta horrez gain ikasketetako orientazioa eskaintzen zaie. Laguntza eskaintzen zaie erabakiak hartzen eta bere bizitza zentzuz bideratzen, bere ibilbidea aukeratzen eta egindako aukeren ardura izaten, bizitzako hainbat eremu eta egoeratan; adinean aurrera doan eran, ikasleari laguntzen zaio bere interes eta gaitasunekin bat datorren aukera akademikoa edo ibilbide profesionala aukeratzen, bere burua eta errealitatea ezagututa.

Ikasleari laguntzeko etengabeko prozesua da tutoretza eta orientazioa. Ikaslearen ikasketa-prozesuaren, komunikazio-prozesuaren, sozializazio-prozesuaren eta garapen pertsonalaren prozesuaren banakako jarraipena egiten da.

Tutoreei dagokie hezkuntzaren alor hau aurrera eramatea, irakasle-taldearekin batera, eta gurasoekiko lotura estuan.

Adinaren eta etaparen arabera, ikasleari tutoretza eta orientazioa emateko era desberdina izan ohi da.

HH-n eta LH-ko lehen bi zikloetan, jarduera globalizatuan, eguneko hezkuntza-jardunaren zati handi bat horretara bideratua dago.

LH-ko hirugarren zikloan eta bigarren hezkuntza osoan tutoretza garatzeko ordu bat dago ezarria asteko eskola-ordutegian, eta mailaz maila ikasturteko tutoretza-plangintza izango du ikastolak, saioz saioko aurreikuspenekin.

Etaparen osoan LASAIKETA lantzen da astean bi edo hiru saioetan tutorearekin eta musika saio batean gelako. LH1 eta 2an "Lagunekin baratzean" materialala lantzen da bereziki. LH3-6 bitartean, "Adimen emozionala", IKKI eta KIVa materiala lantzen da.

DBHn eta DBHOn tutoretza planek jasotzen dituzte ordu bakoitzean zer landuko diren eta nola. Denboralizazio bat egiten da. Ordu hau hainbat gai ezberdin (zeharka gaiak, drogomenpekotasuna, sexualitatea...) lantzeko



erabiltzen da. Baita ere orientazio akademikoa ordu honetan lantzen da eta pisua handiagoa du gai honek DBH bigaren zikloan eta DBHOn.

Nolanahi ere, tutoretza plana garatzea irakasle tutorearen eginkizuna bada ere, tutoretzaren inguruko gaiak beste ikasgai batzuetan ere garatu behar izaten dira, eta tutore ez diren irakasleek ere, beren ikasgaiak edo egoerak aukera eskaintzen dien eran, tutoretza planean jaso ohi diren gaien ildoko interbentzioak egingo dituzte.

Ikastolan adin oso desberdinetako ikasleak daude, eta etaparen edo zikloaren arabera, ikastolako profesionalek adin horietako ikasleen ezaugarrietara egokitu dute tutoretzako esku hartzea. Edonola ere, etapa guztiek erreferentzia modura oinarri, printzipio eta ardatz berak izango dituzte, Ikastolako heziketaren koherentzia eta koordinazioa bermatzeko.

Oro har, ikaslearen hezkuntza ibilbideko etapa guztiak kontuan hartuta, Ikastolak tutoretzaren eta orientazioaren arloan, ondorengo **konpetentzia orokorrak** garatuko ditu (arloaren konpetentzia orokorrak):

1. Ikaskuntza prozesuez jabetzea eta erantzukizunez eta diziplinaz planifikatzea, eskatutako baliabideak eta eginkizunak zehaztuz, hobetzeko premiak identifikatzeko eta hurbileko egoeretan praktika eta metodo onak aplikatzeko, bai eta denbora hobeto erabiltzeko ere.
2. Lanarekin lotutako banako eta gizarte faktore erabakigarriak norberarengan eta ingurunean etengabe ikertzea, erabaki profesionalak hartzeko eta lan ibilbidea kudeatzeko gaitasuna errealismo handiagoz garatzeko.
3. Familian, eskolan, jolas eremuan edo lan giroan behar bezalako harremanak izateko beharrezkoak diren trebetasunak eta taldeen funtzionamendua baldintzatzen duten faktoreak iritzi kritikoz aztertzea eta balioestea, eremu horietan parte hartzeko eta proiektu partekatuak egiteko.
4. Gaitasun fisiko, kognitibo eta afektiboek dagokienez, taldeko gainerako kideetatik bereizten gaituzten berezko dohainak eta jokabideak aztertzea, gauzak egiteko gai den pertsona preziatua sentitzeko eta hobeto kokatzeko, bai nor bere buruarekiko, bai gainerakoekiko elkarreraginean.
5. Inguruneko gizarte egoerei buruz informazioa izatea eta irizpide zuzenez balioestea, injustiziaren eta besteen egonezinen aurrean sentzibilitatea bultzatzeko, beste sentimendu eta ikuspuntu batzuk ulertzeko gai izan daitezen eta horiei buruz kritika arrazoituak egin ditzaten.
6. Abian jarritako ekintzak eta testuinguruan duten eragina ebaluatzea, proposatutako helburua, jarraitutako prozesua eta lortutako emaitza kontuan hartuta, ekimenaren diseinuan hobekuntzak proposatzeko eta lorpen txikiak eta borondatearen indarrak ahaleginean jarraitu eta itxaropen positiboak sortu ahal izateko duten balioa onartzeko.



Arloko **kompetentzia espezifikoak** berriz ondorengoak izango dira:

1. Zailtasunei aurre egitea, frustrazioarekiko tolerantzia izanik, eginkizuna bertan behera utzi gabe eta eginkizuna egiteko beste modu batzuk bilatuz.
2. Eguneroko bizitzan zalantzen aurrean norberak hartzen dituen jarrerari buruz autonomiaz hausnartzea.
3. Beste batzuekin taldean egin beharreko proiektuetan, adiskidetasunez eta elkarlanean aritzea.
4. Lan bat egiteko jarraitutako prozesua arretaz deskribatzea eta ebaluatzea, bakarka edo taldean hausnartuz.
5. Nork bere buruarekin eta gainerakoekin duen jokabidea kritikoki aztertzea.
6. Norberaren eta gainerakoen baitan zer alde on dauden errealismoz bilatzea eta balioestea, mugak onartuta.
7. Taldearen funtzionamendua behatzea eta taldearen jarduna ekimenez sustatzea.
8. Hurbileko gizarte errealitateak hautematea eta enpatiaz eta errespetuz esku hartzea.
9. Eskolako eginkizunak egitean, denbora diziplinaz antolatzea.
10. Egoera gatazkatsuetan, elkarriketan malgutasunez eta enpatiaz jardutea eta taldearen erabakiak onartzea.
11. Hasitako jarduera eta horren eragina autonomiaz eta erantzukizunez ebaluatzea.
12. Etorkizun profesionalari buruzko erabakiak ekimenez eta sormenez hartzea eta aukerak balioestea.

Oro har, Ikastolak tutoretzaren eta orientazioaren arloan, **kontzeptuzko lau eduki**-multzo garatuko ditu:

1.- **Ikaskuntza prozesuak:** Ikaskuntzei dagokienez, orientatzeko jardueraren barruan estrategia kognitiboei eta ezagutzaren irudikapenei dagozkien bitartekaritza sare bat sartzen da. Garrantzi berezia emango zaio norbere buruaren antolaketari eta ikasketa teknikei eta ohiturei.

2.- **Sozializazioa:** Pertsonak, ingurunearekin duten etengabeko elkarreraginean, garapen helburuak lortuz doaz, eta, ildo horretan, hezkuntzako helburuak behar bezala estimulatutako pertsonalitatearen eta gizarte harremanen hainbat eremu garatzearekin identifikatzen dira. Garrantzi berezia izango dute talde-bizitzako dinamikak, gatazken ebazpenak, gizarte trebetasunak garatzeak, aniztasunaren balioak eta herritartasunerako hezkuntzak.

3.- **Garapen pertsonala:** Ikasleen erabateko prestakuntza nabarmentzean, hezkuntzako orientazioak eta tutoretzak garapen harmoniatsua bultzatzen dute, eta, horren bidez, arazoei aurre egiteko eta erabakiak hartzeko jarrera hobea ere bai. Garrantzi berezia izango dute auto-estimua indartzeak, heziketa emozionalak eta afektiboak, erabakiak



hartzeko gaitasunean trebatzeak eta pertsonalitate, gaitasun eta adimen mota desberdinak ezagutzeak eta balioesteak.

4.- **Ikasketa eta lanbide-orientazioa:** Eskolatzeak aurrera egin ahala, ibilbide akademikoan eta etorkizun profesionalari begira ikasleak hartutako erabakiak gero eta garrantzitsuagoak izaten dira, eta horien abiapuntuak bere buruaren eta lan munduaren ezagutza dira.

Bestalde, Ikastolak landuko dituen **jarrerazko edukiak** ondorengoak izango dira.

1. **Autonomia**, proposatutako lanen garapenean eta eginkizunari eta erabakiak hartzeko prozesuei aurre egiteko estiloan.
2. **Enpatia**, gainerako pertsonen bizipenekiko; batez ere, haien egoera emozionalarekiko. Horretarako, beste ikuspuntu bat ulertzeko eta, horren bidez, sentimenduak partekatze gaitasuna lantzen dute.
3. **Asertibitatea**, eskolako egoeretan, talde presioa dagoenean edo irakasleen aurrean, norberaren ikuspuntuak argi eta errespetuz adierazteko gai izateko.
4. **Errespetua** kultur aniztasunarekiko, maila sozioekonomikoarekiko, jokabideekiko, ikuskerekiko edo beste pertsona edo gizarte talde batzuen jarrerekiko.
5. **Frustrazioarekiko tolerantzia**, egoera pertsonal gogorretan edo/eta eskolako egoera zailtan esperimintatutako ezinegonaren aurrean. Hona hemen egoera batzuk: aurreikuspenak ez betetzea, espero ez ziren emaitzak lortzea, harremanetan porrot egitea...
6. **Ekimena**, aldaketak sustatzeko eta aldaketak egiteko, bai gatazkak konpontzean, bai proiektuak garatzean.
7. **Sormena:** proposamenak planteatzean eta eskolako lanean behar diren irtenbideetan, ideia berritzaileak sortzeko gaitasuna.
8. **Malgutasuna:** ekarpen berrietara irekita egotea, bai norberari buruzkoak, bai taldeari buruzkoak.
9. **Iraunkortasuna:** zenbait jarduera egitean erakusten den irimotasuna. Jarduera horiek ahalegin handia egitera behartzen gaituzte, edo jardueraren helburua epe luzean lortzen da.
10. **Auto-diziplina** borondatean eta **iraunkortasunari** (erregulartasuna) lotutako ezaugarria da, eta beharrezkoa da lana antolatzean eta ikasteko metodoak aplikatzean. Bi baldintza behar ditu: ekintzan modu jarraituan egotea eta kontzentratzea.
11. **Pazientzia**, zehatz-mehatz egin beharreko jarduera astunak -errepikakorrak direlako- egiteko. Ikaskuntza prozesuari buruzko hausnarketa ere pazientziaz egin behar da, beti berehalako emaitzarik lortu nahi izan gabe.
12. **Adiskidetasuna**, eguneroko bizitzan pertsonen artean harmonia eta elkarrekotasuna sortzeko eta gainerakoez eskuzabaltasunez interesatzeko. Adiskidetasunak gizarte trebetasunak garatzeko giro egokia sortzen du.



13. **Erantzukizuna**, konpromisoak, emandako hitza eta taldean dagozkion eginkizunak betetzeko. Horrez gain, egiten ditugun ekintzetan arreta jartzea dakar.
14. **Errealismoa**, norberaren aukerak hautematean eta balioestean.

